

**EGOERA POLITIKOARI BURUZKO
EUSKO LEGEBILTZARRAREN OSOKO BILKURA
2007ko irailaren 28a**

LEHENDAKARIAREN HITZALDIA

AURKIBIDEA

I. ATALA:

Aro historiko berri bat

- 1.- *Ez gaude prest iraganak eraman gaitzan*
- 2.- *Aro berriari ekiteko “eskuarteak”*

II. ATALA:

Bakea eta Bizikidetzeta. Gure lehentasun politikoa eta soziala

- 1.- *Bake eta bizikidetzarako plana. Giza eskubideen aldeko ardatza egituratzea*
- 2.- *Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakustea*
- 3.- *Frankismo-garaiko biktimen oroimen historikoa berreskuratzea*
- 4.- *Eskubide zibil eta politikoak defendatzea*
- 5.- *Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko hezkuntza ematea*

III. ATALA:

Euskadi, Giza Garapen Iraunkorrean aurrera doan Herria

A) BERRIKUNTZA, garapen iraunkorraren gurpila

- 1) *Lidergoaren tresna berriak berrikuntzaren zerbitzura*
- 2) *Berrikuntza zientifiko eta teknologikoaren konpromisoa*
- 3) *Enpresen eta sektoreen lehiakortasuna hobetzea*
- 4) *Azpiegiturak garatzea, lehiakortasunerako eta bizi-kalitaterako faktore*
- 5) *Iraunkortasuna, egungo erantzukizuna eta bihar-etziko bermea*

B) Berdintasuna, gizartearen aurrerabidearen motorra

- 1) *Genero-berdintasuna sustatzea*
- 2) *Babes sozialaren arloan berdintasunaren alde apustu egitea*
- 3) *Heziketan eta kultura arloan aukera-berdintasuna bultzatzea*

IV. ATALA:

Euskal gatazkaren irtenbideari ekiteko apustu sendoa

- 1.- *“Zurrunbiloa” eten beharra dago*
- 2.- *Estatutu Politiko berria. Eusko Legebiltzarrean kokatutako proposamen bizia*
- 3.- *Bakea iritsi eta euskal gatazka politikoaren irtenbideari ekiteko ibilbide-orri argi bat. Urratsak eta ondorioak*

Legebiltzarreko burua, legebiltzarkide jaun eta andreok,
Egunon danori.

Politika Orokorrari buruzko eztabaida honi ekin behar diogu, Euskadirentzat hain garrantzi handikoa den garai honetan. Dagoeneko VIII. Legegintzaldi honen erdia gainditu dugu, eta gure konpromisoei buruzko balantzea egin behar dugu, beraz.

Egitura instituzional berria daukagu Foru Aldundietan eta Udaletan, maiatzaren 25ean udal- eta foru-hauteskundeak egin ondoren; badugu, beraz, euskal gizarteak etorkizunera begira dituen apustuei eta ertronkei ekiteko orduan, elkarrekin jarduteko eta lan egiteko aukera eta gaitasuna.

Eta, tamalez, berriz ere, ETAre indarkeria daukagu aurrean, tematuta baitago gu denok iragan suntsitzaile horretara bueltatu gaitzen; aro politiko berri bat planteatu behar dugu, tinko eta sendo, iraganeko zurrumbilo horretatik atera gaitzan eta bakea eta normalizazio politikoa iristeko bide horretan atzera bueltarik gabeko pausoak eman ditzagun.

Hauexek dira gure betebeharrak abagune honetan. Erantzukizun historikoa dugu euskal gizartearen aurrean. Erantzukizuna dugu guk, Gobernuan gaudenok, herritarrek aukeratu gaituztelako; baina zuek ere bai, Legebiltzarra baita herritarren borondatearen ordezkari.

Heldu da ordua; euskal herritarrentzat ditugun proiektuak eta gure proposamen zehatzak aurkeztu behar ditugu orain eta hemen, zorrotz, zehatz-mehatz, adornurik gabe; argi eta garbi esan behar diegu herritarrei nola hobetuko diegun bizimodua, bizi-kalitatea, eta euskal gatazka politikoa gainditzeko zer proposatzen dugun.

Horretarako gaude hemen. Gure proposamenak era positiboan azaltzeko, eta herritarren arazoak konpontzen lagunduko diguten hitzarmenak egiten saiatzeko. Hemen gaude ekimen politikoak planteatzeko, errespetuz; ez gaude hemen elkarren aurka gaizki esaka ibiltzeko, jardun politikoak elkarri aurpegiratzen ibiltzeko; gizartea dagoeneko aspertuta eta nazkatuta dago-eta heldutasunik gabeko jokabide politiko horiekin.

Jarrera positiboa dakart Politika Orokorrari buruzko eztabaida honetara, eta lankidetzan eta elkarlanean aritzeko gogoz nator. Ekimen eta proiektu zehatzak dakartzat, euskal gizarteak giza garapen iraunkorrean aurrera egin dezan; era berean, euskal gatazka konponbidean jartzeko ekimenak ere badakartzat. Gaiak aintzat hartuta, beraz, lau atal nagusi izango ditu nire hitzaldi honek:

- I.- Aro historiko berri bat**
- II.- Bakea eta Bizikidetzaren gure lehentasun politikoa eta soziala**
- III.- Euskadi, Giza Garapen Iraunkorrean aurrera doan Herria**
- IV.- Euskal gatazkaren irtenbideari ekiteko apustu sendoa**

I. ATALA:

Aro historiko berri bat

1.- Ez gaude prest iraganak eraman gaitzan

Gizarte modernoa, dinamikoa, da euskal gizartea. Etorkizunari aurrez aurre begiratzen dio, itxaropentsu, eta giza garapen iraunkorrean aurrera joateko helburu tinkoa du. Gizarte honek gorroto dio indarkeriari; modu baketsuan eta bide demokratikoa erabilita nahi du etorkizuna eraiki, eta bere lekua nahi du izan munduan. Gizarte honek, azken batean, ez dio inori utziko iraganerantz eraman gaitzan; gizartea ez dago horretarako prest.

Beraz, nahiz eta gu denok iragan suntsitzaile horretara bultzatzeko ahaleginetan ETA tematuta dagoen, euskal gizarteak aro historiko berri bati ekin dio, indarkeria alde batera utzita.

Indarkeriaren zikloa bukatu da gizartearen iritziz. Gizarte hau indarkeriarekin gogaituta dago. Gizarte hau aurre-aurretik doa, terrorismoaren zama horretatik eta zalaparta politikotik urruti.

Gizarte hau, azken finean, “dagoeneko” beste garai batean bizi da. Bazterkeriarik gabeko elkarrizketa onartzen du normaltasun osoz. Etorkizun politikoari buruzko eztabaida irekiarekin ados dago, asaldatu gabe; eta gizarte honek giza eskubide guzti-guztiak errespetatu behar direla eskatzen du, ekidistantziarik gabe, baina, era berean, inolako bazterkeriarik gabe.

Gizarte hau, azken batean, ziklo historiko berria ari da eskatzen, tunel ilun horretatik ateratzeko behin betiko. Iraganean arrakastarik gabe erabili diren estrategia horietara bultzatu nahi gaituzten horiek, argi eta garbi, euskal gizartearengandik urrutiratzen ari dira, historiaren joanean atzeraka doaz; denboraren lasterraren aurka, atzeraka.

Zeintzuk dira arrakastarik izan ez duten estrategia horiek, iraganera bultzatu nahi gaituztenak?

Nire iritziz, labur esanda, sei dira:

- Lehendabizikoa eta nagusia, hauxe: ETAk, helburu politikoak lortu nahian, indarkeria erabiltzen jarraitzen duela.
- Bigarrena, indarkeria alde batera utzita, gatazka politikoa hor dagoela eta zenbaitek ukatu egiten duela elkarrizketaren bitartez konpondu behar dela.
- Hirugarrena, biktimak alderdi jakin batzuen onerako erabiltzen direla, beste ezeri begiratu gabe.
- Laugarrena, Bakegintza eta Normalizazio Politikoa nahasten direla, eta ekimen politikoak indarkeriaren amaieraren menpe jartzen direla, politikaren giltza ETArri emanda.
- Bosgarrena, euskal gizartearen zati bat politikoki baztertua dagoela, eskubide zibilak eta politikoak urratzen dituzten bitartekoak erabilia, esaterako, Alderdien Legea.
- Seigarrena, giza eskubideak defendatzen direnean, ezin dela ikuspegi bakar bat erabili. Ezin da atxilotutako pertsonen eskubideak aldarrikatu, baina, aldi berean, ETAREN atentatuen aurrean isilik egon; edo, alderantziz, ezin da ETAREN indarkeria gaitzetsi, eta, aldi berean, tortura eta sakabanaketaren aurrean beste alde batera begiratu.

2.- Aro berriari ekiteko eskuarteak

Hor ditugu iraganean erabili izan diren estrategia antzuak; hor daude behin eta berriz abiapuntu berberera garamatzaten saiakerak. Traba eta eragozpen horiek zapuztu dituzte, indarkeriaren arazoa konpontzeko bideak topatu, eta euskal gatazka politikoaren korapiloa askatu nahian, orain arte egindako ahalegin eta saiakera guztiak. Eta oztopo eta jarrera horiek berberak egon dira, modu batera edo bestera, oraintsu egin den ahaleginaren atzean, porrot egin duen eta herritarren etsipena eta haserrea piztu duen azken ahaleginaren oinarrian.

Ez dut egingo su-etenak iraun dituen 435 egunen kronikarik. Ez dut erantzukizunik banatuko. Su-etena hautsi eta indarkeriari berriro heldu izanaren errudun bakarra ETA da.

Nire iritziz, bakea bilatzeko ahalegin zintzoa izan da. Akatsak gorabehera, (eta izan, izan dira), esfortzuak merezi izan du. Bizitzan, saiatzen dena baino ezin da okertu, eta edozein politikoren ardura da behin eta berriz saiatzea, beharrezkoa bada.

Beraz, ez dut nik Espainiako Gobernuko presidentea kritikatuko elkarrizketaren bitartez indarkeriari amaiera ematen saiatzeagatik. Aitzitik, Eusko Jaurlaritzak beti babestu ditu eta babestuko ditu indarkeriaren irtenbidea aurkitzeko egiten diren kontaktuak, elkarrizketak, negoziazioak edo enparauak; bakoitzak jar diezaiela nahi duen izena.

Baina, hori esanda, gaineratu behar dut indarkeria ezin dela oztopo izan gatazka politikoa konpontzeko ekimen politikoak plazaratzeko. Indarkeriak ezin gaitu behartu egindako bidea desegitera. Elkarrizketa politikoa ez da alferrikakoa izan, eta gaur baditugu lehen ez genituen aktiboak. Oinarri sendoak ditugu ziklo historiko berri bati ekiteko. Baina ziklo historiko hori ireki ahal izateko, nahitaezkoa da bakeari beldurrik ez izatea eta euskal gatazka politikoa konpontzeko ausardia izatea.

Zeintzuk dira, hortaz, ziklo historiko berri bati ekiteko aukera emango diguten aktiboak?

- Lehenengo eta behin, alderdi guztiek onartzen dute irtenbidea gauzatzeko, bi esparru jorratu behar direla: negoziazio teknikoaren esparrua, indarkeriaren amaiera lortzeko, eta euskal alderdien arteko negoziazio politikoaren esparrua, gatazkari irtenbidea emateko.

Indarkeriaren amaiera eta normalizazio politikoa prozesu desberdinak dira, eta solaskide, tresna, metodo eta eduki diferenteak dituzte. Bereizketa hori funtsezkoa da, eta Irlandako esperientziak argi erakusten digu esparru bietan paraleloan lan egitea, elkarren menpe edo azpian jarri gabe, estrategia argia dela azkenean arrakasta lortzeko.

- Bigarrenik, su-etenak iraun duen bitartean izan diren bileren eta kontaktu politikoan ondorioz, indar politikoan artean sekula lortu gabeko adostasunak lortu dira. Gaur egun, adibidez, indar politiko gehienek onartzen dute Euskal Herriaren izaera, eta aitortzen dute elkarrizketaren bitartez konpondu beharreko gatazka politiko bat dagoela.
- Hirugarrenik, indarkeriarekin amaitzeko, elkarrizketaren beharra onartzen da. Ildo horretatik, aukera hori irekita dago oraindik Diputatuen Kongresuak 2005ean onartutako mozioaren bermearekin. Era berean, Europako Parlamentuak eta nazioarteko beste instantzia batzuek ere beren babesa eman diote Euskadiko bake-prozesuari. Begien bistakoa da mota honetako indarkeriaz baliatzen den Europako azken gatazkaren konponbideak nazioarteko babesa pizten duela.
- Laugarrenik, onartzen dugu euskal gatazkaren irtenbidearen gakoa ez dela emaitza politiko zehatz bat —independentzia edo autonomia— adostea, baizik eta joko demokratikorako arauetan bat etortzea, proiektu politiko guztiak baldintza berberetan defendatu eta gauzatu ahal izan daitezen. Euskal gizartearen borondatea errespetatzea eta Euskal Herriko erabaki-esparru desberdinak onartzea. Printzipio demokratiko hori da konpondu behar dugun gatazka politikoaren funtsa.
- Bosgarrenik, gatazka ebatziko duen elkarrizketa bideratu dadin, nahitaezkoa da partaide guztiek giza eskubideak errespetatzeko konpromisoa hartzea eta bide politiko eta demokratiko hutsen aldeko apustua egitea.
- Seigarrenik, eta seguruenik porrot egin duen azken ahaleginak eta aurreko guztiek utzi diguten ikasbiderik garrantzitsuena, euskal gizarteak protagonista izan behar duela prozesu osoan zehar. Bakea lortzeko eta gatazka politikoa konpontzeko prozesu bat ezin da burutu gizartearen alboratuz. Euskal gizarteak parte hartzen ez badu eta aurreraka bultzatzen ez bagaitu, alderdien eta hedabideen interesak eta oztopoak, azkenean, gailendu egingo zaizkio bakerako nahiari.

Ziklo historiko berriak puntu horiek izan behar ditu abiaburu. Zeren, izan gaiten zintzoak, ETA hor egoteak ezin du eragotzi Euskal Herriak bere bidea egitea, eta Espainiako gobernua —dagoena dagoela— ezin du ETArekin indarkeria erabili Euskal Herriak bere bidea egin dezala eragozteko.

Euskal gizartearen arduratuko da horretaz; erlojua martxan jarriko du, denborak eta joko-arauak zehaztuko ditu, eta, azkenik, prozesuaren emaitza berretsiko du.

Horixe da eztabaida honetan proposatuko dudana metodologia-aldaketa funtsezkoena, nire hitzaldiaren azken zatian zehaztuko dudana.

Kontua da ziklo historiko berria irekitzeko ahalmena duen giltza demokratikoa euskal gizartearen esku jartzea, bakea eta normalizazio politikoa lor ditzagun.

II. ATALA:

Bakea eta Bizikidetzaren Gure lehentasun politikoa eta soziala

1.- *Bakea eta bizikidetzarako plana: Eusko Jaurlaritzaren giza eskubideen aldeko ardatza egituratzea*

Inbestidura-saioan hitz eman nuen bakearen eta giza eskubideen alde lan egingo nuela, eta horixe izango zela Gobernu honen lehentasun politikorik funtsezkoena.

Emandako hitz horri erantzun nahian, “*Bakea eta Bizikidetzaren Plana*” onartu zen, Gobernuak arlo honetan egin beharreko lana hezurmamitzen laguntzeko.

Hiru sailburuk aurkeztu zuten plan hori Legebiltzarrean, eurek baitzuten plana martxan jartzeko ardura zuzena; dena den, ateak zabalik zeuden, planean parte hartu edo hobekuntzak egin nahi izanez gero. Ez da, beraz, plan itxia, edo behin-behinekoa. Funtsezko lan-tresna izan nahi du, bai epe ertainean, bai epe luzean, eta bidea urratu nahi du elkarrekin bakean bizitzeko, terrorismoaren biktimei begirunea erakusteko eta giza eskubideak errespetatzeko.

Bada, ia-ia urtebete igaro da bakea eta bizikidetzaren ekartzeko plana abian jarri zenetik, eta atsegin handiz jakinarazi behar dizuet denbora-tarte labur horretarako aurretik zehaztuta zeuden jardunak gehienak diseinatu eta burutu direla dagoeneko, zehatz eta modu eragingarrian, gainera.

Orain, *Bakea eta bizikidetzaren ekartzeko planari buruz lehen urtean egindako txostena* ari gara osatzen, eta, langintza horretan, nazioarteko adituak izan ditugu lagun, baita erakunde eta elkarte independenteak ere; hori dena ondo lotzearren, lan-bilera bat izan genuen joan den irailaren 17an. Txosten hori datorren hilean, urrian, amaituko dugu, eta Legebiltzar honetara ekarriko da gero, kideen onespena jaso dezan.

Dena dela, labur-labur, Bakerako eta bizikidetzarako planaren lau arlo nagusietan garatu ditugun funtsezko ekimenen berri emango dizuegu hemen: Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakustea, frankismo-garaiko oroimen historikoa berreskuratzea, eskubide zibil eta politikoak defendatzea, eta Giza Eskubideetarako eta bakerako hezkuntza ematea.

2.- *Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakustea*

Oroimena, Duintasuna, Justizia eta Errespetua. Helburu horiek izan dira beti gidari, terrorismoaren biktimei elkartasuna eta begirunea adierazteko egin ditugun ekitaldi guztietan. Jakitun ginen euskal gizarteak eta erakundeok nolabait ordaindu beharreko zor moralak genuela terrorismoaren biktimekin, gure begirunea erakusteko orduan ez genuelako ondo asmatu. Horrela planteatu genuen Bake- eta bizikidetzaren planean, eta horrelaxe egin dugu. Denok batera, zintzo eta bihotzez, “sentitzen dut” esateko aukera izan genuen Katalunian, Andaluzian eta beste leku batzuetan, baina, batez ere eta bereziki, apirilaren 22an Euskalduna jauregian biktimei begirunea erakusteko egin zen jardunaldian.

Jardunaldi hori ez zen izan, ez, zerbaiten bukaera; aitzitik, abiaburua izan zen, orain inoiz baino gogotsuago, ibili nahi dugun bide honetan. Bidean beste bi mugarri izango dira laster; batetik, urriaren bostean *Terrorismoaren biktimei buruzko bilkura* egingo da Legebiltzarrean, eta, bestetik, joan den ekainaren 13an biktimen elkartei aurkeztu ondoren, *Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakusteko lege-proiektua* onartuko da.

Aurreproiektu hori, estatuan aitzindari izateaz gain, erreferentzia-puntu ere bada European. Batetik, biktimek egia, justizia, duintasuna eta ordaina jasotzeko eskubidea dutela aitortzen da, eta, bestetik, gaur egun Gobernuak duen laguntza-programari utzi, eta izaera iraunkorra duen beste bat proposatzen da. Gobernuak, jasotako ekarpenak aztertu ondoren, behin betiko testua onartu eta Legebiltzarrera igorriko du, bilkuran aztertu, eztabaidatu eta, hala badagokio, udazken honetan bertan onar dezan.

3.- Frankismo-garaiko biktimen oroimen historikoa berreskuratzea.

Denbora luzea igaro da, luzeegia, baina azkenean egin dugu... Gerra zibilaren 70 urteurrena zela-eta, Bizikidetzaren Planaren jasotako konpromisoei erantzunez, Eusko Jaurlaritzak *frankismo-garaiko biktimen omenez egindako programa* garatu du, biktima horiek erabat ahaztuta geratu baitziren trantsizio demokratikoan.

Nabarmen uzteko modukoak dira, hain sinbolikoak izanik, gerra-garaiko umeen oroimenez egindako ekitaldiak, Gernikako bonbardaketaren 70 urteurrena gogora ekartzeko ekimena, gudarien oroimenez Artxandan jarritako eskultura, Matxitxakoko eta Intxortako gudak gogoratzeko monumentuak, fusilatutako eta galdutako pertsonen alde Irungo hilerrian egindako omenaldia, Agirre lehendakariak erbestera joan aurretik Turtziozen egindako azken gobernu-kontseilua gogoratzeko jarduna.

Benetan zirrargarriak izan dira ekitaldi horiek denak; besarkatu egin dugu elkar, hunkitu egin gara, eta, batez ere, ilunpetako ahanztura bidegabe horretatik argitara ekarri dugu, askatasuna defendatzearen faxismoak gogor zigortu zituen emakume eta gizon haien oroimena.

4.- Eskubide zibil eta politikoak defendatzea

Giza eskubide guztiak defendatu nahi ditugu, epelkeriarik gabe eta inor baztertu gabe, horixe da-eta euskal gizarteak erkide duen orubea. Giza eskubideak ezin dira nahierara aukeratu, horrek ez dauka-eta inolako sinesgarritasunik. Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzak *Euskadin eskubide zibil eta politikoen alde lan egiteko programa* osoa onartu zuen uztailaren 3an.

Jardun-programa horrek neurri eta ekimen asko dakartza; esaterako, txosten independenteak egin nahi ditu, era horretara, zenbait gai aztertzeke, besteak beste, arategi antiterrorista, Giza Eskubideen Nazioarteko Adierazpenen aplikazioa, hedabideak ixteko aginduak eta informazio-eskubidearen erabilera. Era berean, lege-arloko ekimenak ere jarriko dira martxan, salbuespenezko araubide juridikoak aldatzeke edo kentzeke. Alderdien Legeaz ari gara, eta, horrez gainera, esan nahi dugu espetxeetako arau jakin batzuk indargabetu behar direla, eta Zigor Kodeko zenbait artikuluko moldatu behar direla, gure ustez, euskal herritarren oinarrizko eskubideak zapaltzen baitituzte.

5.- Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko hezkuntza ematea

Legebiltzarrean biktimei buruz joan den ekainean egindako txostena dela-eta, Gobernuak *giza eskubideen eta bakearen alde hezkuntza-arloan lan egiteko euskal plana* izango denaren aurrerapena aurkeztu zuen. Plan horrek bost milioi euroko aurrekontua du, eta Bake- eta bizikidetzaren planaren ardatz funtsezkoenetako bat osatzen du. Giza eskubideen aldeko hezkuntza sustatzea, eta, gatazkak konpontzeko orduan, bakea eta bide politiko eta demokratikoak defendatzeko jarrera egokia lortzea, horiexek dira planaren helburuak. Plan horretan, programen bitartez, zenbait arlo landu nahi dira, esaterako, dokumentazioa, prestakuntza, zabalkundea eta sentsibilizazioa; horrez gain, Jaurlaritzaren Kontseiluak udazken honetan bertan onartu aurretik, alderdi politikoen ekarpenak ere jasoko dira.

Hauxe da, labur esanda, Bake- eta bizikidetzaren plana betetzearren lehendabiziko urtean egindako jardunik garrantzitsuenen aurrerapena. Eusko Legebiltzarrak izango du, txosten osoa bidalitakoan, zehatz eta sakon aztertu eta balioesteko aukera, azaroaren hasieran.

III. ATALA:

Euskadi, Giza Garapen Iraunkorrean aurrera doan Herria:

Errealitatea, itxaropentsua

Euskadik ederki asko erakutsi du gizarte modernoa, dinamikoa eta irekia dela, nahiz indarkeriaren zama eraman behar duen bizkarrean. Etorkizunari begira dagoen gizartea da, eta gainditu beharreko oztopo guztiak gainditzeko prest dago, Giza Garapen Iraunkorrean munduko lehendabiziko postuetara iristeko. Horixe da gure helburua.

Aurreko legealdian lortu genuen, lehendabiziko aldiz gure historian, gure ongizaterako funtsezko diren bi jomugara iristea: Europarekin bat egin genuen, bai errentari dagokionez, bai enpleguari dagokionez.

Duela gutxira arte bazirudien ezinezkoa zela bi jomuga horietara iristea, baina gaur egun hortxe gaude zalantzarik gabe, eta, pozik, atsegin handiz aitortu behar dugu, gainera, aurre-aurreneko postuetan jarri garela Europan.

Azken estatistika-datu ofizialen arabera, gure BPG % 4,2 hazi zen 2006an, Espainiako eta Europako batez bestekoaren gainetik, beraz. Horrek esan nahi du hamahiru urtez jarraian ari garela hazten etenik gabe. Hazkundea % 4tik gorakoa izan da 2007. urteko lehen sei hilabeteetan ere, eta horrek erakusten du gure ekonomia bide onetik doala.

Era horretara, Euskadin, 2006. urte bukaeran, per capita errentan lortu den mailak, eros-ahalmenaren parekotasun-kopuruetan neurtuta, esan liteke Europako batez bestekoa % 28 gainditu duela ia, eta, beraz, Europako aurreneko hiru herrialdeen artean dagoela, Luxenburgo eta Irlandaren atzetik. Konparazio baterako, datu hau emango dizuet. Espainiako ministro Solbes jaunak oraintsu egindako adierazpen batzuetan adierazi zuen Espainiak 2010. urterako duela jarria Europar Batasunarekiko batez besteko errenta gainditzeko helburua.

Langabezia-tasa (denok ikusi dugu inoiz % 25ekoa ere izan dela), bada, orain, % 5etik beherakoa da; zehatzago esanda, % 3,4koa da, Eustatek emandako azken datuei erreparatuz gero behintzat. Nolanahi den ere, enplegu osoaren maila teknikoetan gaude. Europar Batasunean, 2000. urtean, 27 herrialdeetatik 23k zeukaten gurea baino langabezia-tasa txikiagoa. Bada, 2006rako, bi herrialdek bakarrik zuten (Danimarkak eta Holandak) Euskadik baino langabezia-tasa txikiagoa.

Baina, gauza guztien gainetik nabarmendu behar da emakumezkoen eta gizonezkoen langabezia-tasak ia-ia berdindu egin direla; gogoratu behar da, duela 10 urte baino gutxiago, bien arteko aldea % 15 puntukoa zela.

Lisboako estrategiaren arabera, politika ekonomiko guztietan funtsezkotzat jo behar dira bi helburu nagusi, “growth and jobs”, hau da, “hazkundea eta enplegua”; eta, horrenbestez, bi helburu horiek kontuan hartzen baditugu, euskal ekonomiaren emaitzak bikainak dira benetan.

Beste alde batetik begiratuta, Eustaten arabera, eta, betiere, herrialde batean Giza Garapenaren Indizea neurtzeko Nazio Batuek erabiltzen duten metodologia bera erabilita, hau da, biztanleko errenta-maila, hezkuntza eta bizi-itxaropena aintzakotzat hartuta, Euskadi munduko lehendabiziko bost herrialdeen artean dago, ongizateari dagokionez.

Ez naiz, bada, orain gehiegi luzatuko beste era bateko adierazleen berri ematen; enpresa-sorrera dela, kalitate-egiaztagiriak direla, herritarren segurtasuna, zorpetze-maila, esportazioen hazkundera eta abar. Datu horiek guztiak ofizialak dira, eta, seguru aski, horietaz hitz egiteko aukera izango dugu eztabaida honetan. Hiru datu soil horiek eman ditut (errenta, enplegua eta giza garapena), gauza bat bakarra adierazteko: gaur egun dugun bizi-kalitatearen maila Euskadik bere historia osoan izandakorik handiena dela.

Eta, zer esan nahi du horrek? Arazorik ez dugula? Zer hobetarik ez dagoela eskolan, lanbide-heziketan, unibertsitatean, etxebizitzan, enpleguan...? Zer esan nahi du? Laguntza-eske sufritzen ari den pertsonarik eta kolektiborik ez dagoela? Ez, ezta inola ere. Gauzak nahikoa ondo egin ditugu orain arte, baina horrek ez du esan nahi etorkizuna bermatuta daukagunik. Horrexegatik, noraino iritsi garen ikusita oso pozik bagaude ere, aurrera begiratu eta nora iritsi behar dugun jakin behar dugu ondo, horixe da-eta benetan garrantzitsua. Ondo jakin behar dugu zeintzuk diren aurrean ditugun jomugak eta zeintzuk diren horra iristeko martxan ditugun ekimen eta estrategiak.

Inbestidura-etzabaidan hitz eman nuen gogor lan egingo nuela bi helburu lortzearen; bi apustu horiek zailak izango dira irabazten, urte askoan oso atzetik ibili garelako; baina, gogoz, helmuga horretara ere irits daiteke, errentan eta enpleguan Europarekin bat egitera iritsi ginen bezalaxe.

Europarekiko konbergentzia teknologikoa eta konbergentzia soziala lortu behar ditugu, biztanle bakoitzari ematen zaion babes sozialaren arabera neurtuta.

Helmuga horietara iritsi nahian, Eusko Jaurlaritzak Giza Garapen Iraunkorra lortzeko estrategia integrala ari da garatzen.

Estrategia horrek bi helburu nagusi ditu:

- Aurrerabide ekonomikoa, garapen iraunkorrari lotuta.
- Aurrerabide soziala, humanismoari eta elkartasunari lotuta.

Bi helburu hauek lortzeko bidean bi gurpil ditugu lagungarri eta eragile: berrikuntza eta berdintasuna. Berrikuntzaren eta berdintasunaren gurpilen gainean doa gure gobernu-lana eta ardatz hori da gidari, abiarazi ditugun ekimenak egituratzeko orduan; eta helburua badakigu zein den: gizarte oparagoa izatea, gizarte solidarioagoa izatea eta gizarte iraunkorragoa izatea.

A) BERRIKUNTZA, garapen iraunkorraren gurpila.

Guztiok dakigu berrikuntza-prozesuak zein garrantzi duen gaur egun, hil ala biziko kontua eta funtsezkoa baita mundu globalizatu honetan, gero eta lehiakorragoa den mundu honetan.

Gure jarduna eraberritzeko eta berriztatzeko gai izan behar dugu, gure produktu, gure prozesu eta gure kudeaketa guztietan; eta esparru eta arlo guztietan, gainera; bestela, beste herrialde lehiakor batzuk hor egonda, gure soldadak eta lanpostuak arriskuan izan daitezke-eta. Gaur egun inork egindakoa kopiatu eta hobetzea ez da nahikoa; aurreratu egin behar da, eta beste inork eskaintzen ez duen zerbait eskaini. Eta horixe da, hain zuzen ere, BERRIKUNTZA. Non dago gure etorkizuna? Merkatura datozen herrialde berriekin prezio-kontuetan lehian? Ez; berrikuntza-lanetan jardun behar dugu onenen aurka nor baino nor. Horixe izango da gure bigarren transformazio ekonomikoa; inportanteena, zailena eta, era berean, liluragarriena ere bai. Berrikuntzaren Herri bilakatu behar dugu Euskadi. Euskadik izan behar du, ez erreferentzia-puntuetakoa bat, besterik gabe...; Euskadik izan behar du European berrikuntza-gailetan "erreferentzia-puntu nagusia". Horixe da gizarte modura aurrean daukagun erronka. Abian dira dagoeneko hori lortzeko lan-tresnak eta estrategiak.

1.- *Lidergoaren tresna berriak berrikuntzaren zerbitzura*

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Batzordea; Berrikuntzaren Euskal Agentzia, eta Ikerbasque Fundazioa: “Berrikuntzarako Euskal Hiruhortza”.

Joan den uztailen beste hiru lan-tresna jarri ditugu martxan, eta, modu grafikoan nolabait esatearren, hiruren artean osatzen dute “berrikuntzarako euskal hiruhortza”. Alde batetik, *Zientzia eta Teknologiaren Euskal Batzordea* eratu zen uztailaren 13an Ajuria-Enean; planak martxan jartzeko orduan, estrategietan eta aurrekontuetan jarraitu beharreko gidarlerroak zehaztu eta onartzeko ardura izango duen organo gorena izango da. Lehendakaria bera izango da zuzenean batzordeburu; berarekin batera izango dira, batzordekide, Eusko Jaurlaritzako eta hiru Foru Aldundietako instituzio-arduradun nagusiak, hiru euskal unibertsitateetako errektoreak eta Ikerbasque eta Berrikuntzaren Euskal Agentziako ordezkariak.

Ikerbasque, Mari Carmen Gallastegi andrea buru dela, Guggenheim Museoa aurkeztu zen ofizialki ekainaren 5ean. Fundazioa honek “talentua eta adimena erakarri eta zaindu” nahi ditu; alegia, mundu osoko ikertzaile bikainenak bilatu eta gureganatu nahi ditu, *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemara* ekartzeko. Hurrengo bi urteetan 100 ikertzaile bikain aukeratu eta gureganatzea, horixe du helburu. Ildo beretik, esan behar dut lehendabiziko deialdia egin dela, eta oso arrakastatsua izan dela; beraz, nazioarteko lehen 30 ikertzaileak datozen hiletan hasiko dira lanean gurekin, hemen, Euskadin.

Azkenik, *Berrikuntzaren Euskal Agentzia* dugu, Pedro Luis Uriarte jauna buru dela; Euskadiko berrikuntza-sisteman parte hartzen duten eragile guztiak koordinatzea eta sustatzea, horixe da bere jatorrizko xedea. Agentzia hau 90 kiderekin hasi da lanean, baina handitzeko asmoa du, eta, urtebeteko epean, gutxienez 300 bat eragile biltzeko asmoa du; berrikuntzarako euskal hiruhortzaren zutabe nagusia izango da orduan.

Lan-tresna horiek martxan jarrita, argi eta garbi erakutsi nahi dugu Gobernuak eta Lehendakariak gidari izan nahi dugula gure Herriaren ikuspegia garatzeko orduan: eredu eta erreferentzia-puntu izan nahi dugu European, eraberritze eta berrikuntzaren alorrean. Gidaritza eta ikuspegia, bai... baina, horrez gain, estrategia eta konpromiso zehatzak ere behar dira, bai. Estrategia eta konpromiso horietaz oraintxe hitz egingo du, ondorengo ataletan.

2.- *Berrikuntza zientifiko eta teknologikoaren konpromisoa*

a) *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana*

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Batzordean aurkeztu ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana* onartu zuen uztailaren 24an. Horixe da, hain zuzen ere, Euskadin inoiz egindako planik handiena. Gobernu honek hartutako erabaki estrategikoa da benetan.

Plan horrek gidatuko du bigarren euskal berrikuntza ekonomikoa, eta, horretarako, baliabide publiko nahiz pribatuetatik, 6.700 milio erabiliko dira 2010. urtea arte berrikuntzaren alde, Euskadi berrikuntzaren erreferentzia-puntu bihurtu dadin European.

b) *Arlo teknologiko berriak eta etorkizuneko jardunak sustatzea:*

Lehenik eta behin, biozientzien indarra nabarmendu behar dugu, “*biobask*” izeneko strategiaren bidez. Gaur egun esan dezakegu Euskadi eredu dela bioteknologiaren arloan estatuan, eta erreferentzia-gune bilakatu nahi dugu bai European bai mundu osoan. Horretarako, aurten bertan inauguratu dugu *biologia estrukturalako unitate berria Biogune Zentroan*, Derion; 100 ikertzaile baino gehiago dira bertan, José María Mato zientzialari ospetsua aitzindari eta buru dela. Unitate berri horrek aurre-

aurrean utziko gaitu European biologia estrukturalaren arloan, eta horko emaitzak lagungarri izango dira gero gaixotasun batzuk sendatzeko orduan, minbizia eta parkinsona, esaterako. Gainera, *biomaterialei buruz ikertzeko zentro berria – biomagune-* inauguratu da Miramoneko teknologia-parkean. Ikerketa-esparru horretan teknologia-zentroak, enpresak eta unibertsitate-instituzioak dira partaide; hasierako inbertsioa 36 milioi eurokoa izan da, eta oso kualifikazio-maila handiko 70 zientzialari bilduko dira bertara.

Bigarrenik, “*Nanobasque 2015*” *estrategia* jarri dugu martxan, arlo teknologiko-enpresarial berri bati bultzada emateko; aurrekontua 100 milioi eurotik gorakoa da, eta nanozientzien eremuan ikertzea da helburua, edo, beste era batera esanda, atomoen eta zelulen eskalan lan egitea. Estrategia horretan eman beharreko lehen pausoa Ibaetako unibertsitate-campusean *Nanogune Ikerketa Zentroa* eraikitzen hastea izango da; inbertsioa 45 bat milioi eurokoa izango da. Ikerketa-gune hori hemendik bi urtera has liteke lanean; bost laborategi izango ditu, eta bertan 80 zientzialari izango dira lanean, mundukorik onenetakoak. Zentro horrekin batera izango dira Donostia Internacional Physics Center, CEIT, José María Korta zentroa (martxoaren 28an inauguratua), eta EHU-CSICen arteko zentro mistoa. Horrek erabateko iraultza teknologikoa ekarri, eta Europako nahiz munduko mapa teknologikoan jarriko du Euskadi.

Eta etorkizunari begira, jakinarazi behar dizuet bide beretik etorri dela beste gune bat, *Ordezko Energiaren Ikerketa Zentroa -Energigune-*; Araban eraiki da, Miñaoko teknologia-parkean. Energiaren Euskal Erakundearen bidez bultzatu da ekimena, eta teknologia-zentroak, unibertsitateak eta enpresa pribatuak ere izan dira partaide. Ikerketa-gune hori epe ertainean erabiliko den estrategia integral baten abiaburua izango da ordezko energiaren arloari indarra emateko, betiere, energia-klusterrarekin batera koordinatuta.

Neutroi Espalaziorako Europako Zentroa eraikitzeke hautagaien artean dago Euskadi, eta garatzen ari garen oinarri zientifiko horrek indarra emango dio horretarako; beraz, lehentasun osoa du proiektu estrategiko horrek; onartuz gero, 1.200 milioi euroko inbertsioa eskatuko luke guztira. Jakina denez, Euskadiko eta Espainiako Administrazioek 300 milioi euroko ekarpena egiteko konpromisoa dute, Bizkaiko egoitza bultzatzearen. Lehia gogorra izango da, oraingoz beste lau lehiakide baitaude aukeran: Suedia, Erresuma Batua, Alemania eta Hungaria. Gure aldetik, behintzat, badakizue egin beharreko ahalegin guztiak egingo dituguna, proiektu hori azkenean Euskadira etor dadin.

Bukatzeke, beste azpiegitura teknologiko berri batzuk aipatuko ditut, alegia, erakunde publiko eta pribatuen artean lankidetzan martxan jarritakoak. Esaterako, aipatzeko modukoa da, *saiakera aeronautikoak egiteko laborategia Miñaon*; aitzindari da Europa osoan, eta Teknologia Aeronautikoen Zentroak sustatu du. *Amorebietako Automozioko Inteligentziari buruzko Zentroa*, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta automozio-esparruan punta-puntakoak diren euskal enpresak lankide direlarik; era berean, *Polo Garaia* ere badugu Arrasaten, MCC kooperatibak bultzatuta; Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Arrasateko Udala izan dira horretan lankide, eta aurten bertan, ekainean, *Edertek zentro teknologiko* berria ireki dute, materialei buruz ikertzeko.

Ezagun da, beraz, pausoz pauso oinez goazela berrikuntzaren bide horretan aurrera; eta hasierako emaitzak ere hortxe daude begien bistan dagoeneko. Ez dira, ez, amets hutsak, bete ezinak; errealitateak dira, hor aurrean ditugunak. Eta bide beretik lanean jarraituko dugu, nahiz eta Espainiako Administrazioak ez digun ikerkuntza zientifikoa eta teknikoaren arloan dagokigun eskumena eman oraindik, halaxe jasota egonda, berariaz, 1979. onartutako Gernikako Estatutuaren 10. artikuluko 16. puntuan.

Gobernu honek, eta, oro har, euskal erakundeok behin eta berriz salatu dugu egoera hori; enpresa-elkarteek ere erreklamazioak egin dituzte, eta Senatuak berak ere, 2007. urte honetan bertan, aitortu du, Estatutuetan berariaz halaxe adierazita dagoenean, zenbait autonomia-erkidegok, Euskadik besteak beste, Zientzia eta Teknologia arloetan eskumenak dituztela; hori guztia horrela izan arren, hala ere, ikerkuntza zientifikoa eta teknikoaren eskumena ez dago oraindik gure esku.

Lotsagarria dela iruditzen zait; legeria 28 urtean ez da bete guztion aurrean era nabarmenean, eta hori salatu egin behar dugu jendearen aurrean. Salatu egin behar dugu, arlo judizialean ez ezik, gizartearen aurrean ere bai, arau-hauste hau dela-eta, Euskadik, gutxi gorabehera, 1.000 milioi euro utzi dituelako jaso gabe azken 15 urteotan, guk, Estatuari kupo barruan arlo hau dela-eta % 6,24 ordaindu ondoren, askoz gutxiago jasotzen dugulako gero bueltan. Estatuak beretzat hartzen ditu diruak, “bere arrazoiak” dituela argudiatuta.

3.- *Enpresen eta sektoreen lehiakortasuna hobetzea*

a) *Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntzarako Plana*

Legebiltzarreko industria-batzordeak lehiakortasun eta gizarte berrikuntzarako Plana berretsi zuen apirilaren 2an, legebiltzarreko taldeek aurkeztutako 31 ekarpen ere barruan jasota zeudela. Beraz, 2009. urtera arte indarrean egongo den esparru-programa daukagu, eta horrek babestu egingo ditu gainerako plan estrategikoetako arloak eta helburuak, besteak beste, honako hauek: enpresak berritzea, sustatzea eta garatzea, nazioartean zabaltzea, turismo- eta merkataritza-arloak indartzea, lehen sektoreko lehiakortasuna bermatzea eta azpiegiturak garatzea.

b) *Lehiakortasunerako Euskal Erakundea*

Donostian maiatzaren 18an inauguratu zuten Lehiakortasunerako Euskal Erakundea. Michel Porter jauna da ohorezko lehendakari, lehiakortasun-arloan munduko aditurik handienetakoa bera. Erakundea nazioartean diren antzeko beste erakunde batzuekin egongo da lotuta sarean, eta bera izango da gidari, erakunde publikoen eta euskal enpresen lana gidatu, argitu eta laguntzeko orduan, betiere, Euskadiren lehiakortasuna eta produktibitatea etengabean hobetzen jarraitzeko.

c) *Enpresa txiki eta ertainei laguntzea eta talde aitzindariak osatzea*

Eusko Jaurlaritzak, jardun teknologiko berriak eta sortzen ari diren sektore berriak sustatzeaz batera, lehiakortasuna indartzeko estrategia bat diseinatu du bi oinarri dituela; batetik, orain dagoen sare industrialari laguntzen dio -batez ere, enpresa txiki eta ertainei-, eta, bestetik, munduan lehiari ibiltzeko gai diren taldeak sortzen ditu, besteen aitzindari eta gidari izateko. Eusko Jaurlaritzak, helburu horiek aurrean dituela, ohiko programez gainera, beste ekimen batzuk ere jarri ditu martxan, berrikuntzaren kultura euskal enpresaren sarean hedatu eta txertatzeko.

Esate baterako, “*Berrikuntza Agenda – Agenda de la Innovación*” programa dugu; 52 milioi euro izango ditu erabilgarri, eta aholkulari-sarea eskainiko die enpresa txiki eta ertainei, enpresetan berrikuntza sartzeko bidean aholkua eta laguntza emateko. *Innovamet sare*a jarri zen martxan maiatzaren 14an; sare horretan 100 erakunde eta gizarte-eragile daude bilduta, berrikuntza-arloan laguntza emateko ekimenak koordinatuta egon daitezzen eta enpresek leihatila bakarra izan dezaten arlo honetan. *Gauzatu Programak* ere 1,5 milioi euro jarriko ditu, aurrerakin itzulgarrien bidez, teknologia- eta berrikuntza-oinarriak

dituzten enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko. *Innova ekimena* ere abiarazi da, berrikuntza era guztietako antolamenduetan bultzatzeko modu sistematikoan; eta *Entreprenari* eta *Eje* proiektu berriak ere bai, jende ekintzailearen kultura zabaltzeko eta sustatzeko unibertsitateetan eta lanbide-heziketako eskoletan.

Aitzindari eta gidari izateko taldeei dagokienez, aurtengo urtea amaitu baino lehenago, *industria-partaidetzako funts estrategikoa* eratuko da.

Eusko Jaurlaritzak 70 milioi euro emango ditu ekitaldi honetan, baina, azken helburuaren arabera, 400 milioi euro izango dira guztira; diru-kopuru hori Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Aurrezki Kutxek emango dute denen artean, enpresen arteko bategiteak sustatzeko eta etorkizuneko proiektu estrategikoak garatzeko, bai Euskadin bertan, bai kanpoko aldean.

d) *Nazioartea zain daukagu.*

Euskal konpainiek eta enpresek merkatu berrietara jo behar dute inolako konplexurik gabe, eta munduko gorenko mailetan jokatu behar dute, horrela bermatuko ditugu-eta hemen ditugun lanpostuak. Horretarako, *SPRIren kanpoko sarea ari gara indartzen*. Ordezkaritza-bulego berriak ireki dira oraintsu Errumanian, Errusian eta Costa Rican. Mundu osoan zehar zabalduko agenteen sareaz gainera, iaz beste agente bat gehitu zen Portugalen, eta, hemendik gutxira, beste agente batzuk ere hasiko dira lanean Algerian, Beneluxen, Arabiar Emirerrietan eta Herrialde Baltikoetan. Guztira, 26 herrialdetan dago ordezkatuta SPRI, eta aurten bertan, aurreikuspenen arabera, *ordezkaritza iraunkorra irekiko da Indian, eta beste bat Turkian*.

Gainera, gogor ari gara lanean, laster *plataforma industrial jarri ahal izateko Txinan*; gaur egun Polonian diharduenaren antzekoa izango da, eta prest egongo da 2008rako. Ekimen horiek, *atzerrian enpresak jartzeko laguntzen programarekin batera*, asko ari dira laguntzen euskal enpresak kanpoko merkatuetan zabalduz joan daitezzen, batez ere, enpresa txiki eta ertainei dagokienez.

Orain artekoen osagarri, funtsezko beste lan-tresna batzuk ere baditugu euskaldunak nazioartean ibiltzeko eta Euskal Herria munduan ezagutarazteko; Euskadik atzerrian dituen ordezkaritez ari gara, bai. Duela gutxi, otsailean, Amerikako Estatu Batuen ordezkaritza ireki zen, egoitza New Yorken duela; laster, 2008. urtean, Parisen irekiko da beste ordezkaritza bat, eta horrek denak, zalantzarik gabe, indar handia emango die gaur egun erabat martxan diharduten sei ordezkaritza ofizialei.

e) *Turismo- eta merkataritza-arloetako eta lehen sektoreko lehiakortasuna hobetzea*

Bukatzeko, gure ekonomian oso garrantzi handikoak diren sektore eta jardunetan lehiakortasuna eta kalitatea hobetzeko egiten ari garen ekimenik nabarmenenak aipatuko ditut. Esate baterako, turismoaren sektoreari lotuta, *Tourgune Zentroa* eratzeke ekimena bultzatu dugu, eta arlo horri buruzko 80 ikerketa-proiektu daude hor bilduta. Gainera, *turismoa sustatzeko atari* berria ere ireki dugu, eta *nekazaritza-turismoko etxeak* sustatzeko beste arautegi bat ari gara prestatzen; horretarako, jarduera horretan diharduten enpresekin batera ari gara lanean.

Merkataritzaren alorrean esan behar dugu, bost urtean, 2000tik 2005era bitartean, % 37 hazi dela sektorea, eta 133.000 pertsona ari direla lanean horretan. Lan handia egin dugu, bai, aurten bertan, *Merkataritzaren Euskal Behatokia* martxan jarri ahal izateko; lan-tresna berri hau funtsezkoa izango da, merkataritzak Euskadin duen bilakaera aztertzeke eta arlo hori sustatzearren erabiltzen diren politika instituzionalak hobetzeko.

Aipamen berezia egin behar dugu *lehen sektoreari* dagokionez; arlo horretan, besteak beste, *Ardoaren Plan Estrategikoa* onartu da, Nafarroako eta Errioxako autonomia-erkidegoekin batera lankidetzan. *Gaztenek programari esker*, enpresa-gizon gazteak ere sartu dira berrikitan sektorean, eta *Eroski banaketa-taldearekin hitzarmena* sinatu da, Frantzia eta Alemaniako merkatuetan euskal etiketa daramaten produktuak merkaturatzeko.

Era berean, *Arrantzaren Plan Estrategikoa* ere ezinbestekoa izango da arrantzak etorkizuna izan dezan; nondik norako nagusiak hil honetan bertan onetsi dira, Gobernuaren Plangintzarako Ordezko Batzordean, eta prest egongo da urtea amaitu baino lehenago.

Lehiakortasunari eta berrikuntzari buruzko arlo hau bukatzeko, esan behar dut, orain arte adierazitako jardun, ekimen eta proiektu berri guztiez gainera, Jaurlaritzak beste bi ekimen jarriko dituela martxan, eta, zalantzarik gabe, eragin handia izango dutela gizartean:

- Batetik, enpresa berriak sustatu nahi dituztenentzat, "*leihatila bakarra*" eta *ekintzaileentzako funtsa* jarriko dira martxan; Eusko Ganbarak ere lankide izango dira ekimen honetan.
- *WI-FI sareak zabalduko dira*; hau da, Interneten doan sartzeko aukera izango da titularitate publikoa duten egoitza eta lekuetan, euskal lurralde osoan; horrez gainera, Itelazpi sarea ere zabalduko da, baserrietan Interneten sartu ahal izateko.

4.- Azpiegiturak garatzea, lehiakortasunerako eta bizi-kalitaterako faktore

Berrikuntza baldin bada ekonomiaren bigarren eraldaketaren motorra, azpiegituren garapena da lehiakortasuna hobetzeko funtsezko euskarria, Europako komunikazio-sareekiko lotura bideratuz, salgaien salerosketen diru-kostua murriztuz, ingurumenaren iraunkortasuna bideratuz eta herritarren bizi-kalitatea hobetuz.

Lortu nahi dugun garraio-sistema integrala da, orekatua eta ingurumenaren aldetik iraunkorra, hala izan behar duela baitiote bai Europar Batasuneko Garraiorako Liburu Zuriak bai Garraio Iraunkorrerako Planak, 2012era arte indarrean izango denak. Eta apustu horretan, egitasmo entzutetsuenetakoa bat *abiadura handiko trenbide-sarea* da, *euskal Y* delakoa. Momentu honetan, Arabako eta Bizkaiko zatien % 90 obretan dago, edo esleiturik dago, edo lizitazio-bidean dago. Gipuzkoan, berriz, jaurlaritzak joan den uztailen hasi zuen lehenengo zatiaren lizitazioa, Ordizia eta Itsasondo artekoa; zati hori % 98an lur azpitik joango da. Ondotxo dakigu halako azpiegitura orok ingurumenaren aldetik zer-nolako kezka eragiten duen, eta, horregatik, jabetzak banan-banan kentzeko bulego bat zabaldu dugu, trenbidearen 2/3 lur azpitik edo zubi gainetik joango da eta hiru euskal hiriburuetarako sarreretan ahalik eta eraginik txikiena sortuko dugu.

Benetan ahal dugun guztia egingo dugu trenbide-sare berriak ingurumenean ahalik eta eraginik txikiena izan dezan, baina trenbidea egin egingo dugu, eta ez soilik hari esker irisgarritasun hobea izango dugulako bai barruan bai kanpotik barrura, horregatik bai, baina baita salgaiak trenez garraiatzeko aukerari bultzada izugarria emango diolako ere, eta horrek atmosferara askoz ere gas kutsagarri gutxiago isurtzeko bidea emango digulako, gure errepideetan egunero-egunero milaka eta milaka kamioi baitabil atzera eta

aurrera. Horretarakoxe da, hain zuzen ere, Bilbo eta Brujas arteko “*itsasoko lehenengo autobidea*” ere. Joan den asteazkenean hasi zen lanean, eta, hari esker, ia 100.000 kamioi gutxiago pasako da urtean Irundik.

Barruko irisgarritasuna dela-eta, aipa ditzagun *Euskotren XXI Plan Estrategikoa*, lehenengo urtarriletik *Metroa Portugaletera iritsita dagoela*, Ariz eta Basauri artean ere metroko lanak garatzen ari direla eta Santurtzi alderako lanek ere aurrera egin dutela eta zati hori datorren urte-amaieran zabaltzekoa dela. Horri guztiari esker, milaka euskal herritarren bizi-kalitatea ikaragarri hobetuko da.

Eta aipa ditzagun, era berean, *Gasteizko tranbia* egiteko lanak, *Eibar-Gasteiz* errepide berria, laster amaitzekoa dena -2008ko lehen erdialdean zabaltzekoa da-, eta Supersur delakoa egiteko lanen hasiera, Bizkaian.

Azpiegitura-sare hori euskal herritarren esku dago, eta Euskadi Europa hegoaldeko erdigune logistiko nagusia bihurtuko du. Nahiko luke berarentzat batek baino gehiagok.

5.- **Iraunkortasuna, gaurko erantzukizuna eta bihar-etziko bermea**

Ekonomian aurrera egingo badugu –ekonomian aurrera egiteko egitasmoa ari baikara eraikitzen-, garbi dago iraunkortasuna ere aitzat hartu beharra dagoela, eta orekari eusteko osagai ezinbestekotzat hartu ere, natura gure ondotik datozen belaunaldientzat ere gorde dezagun. Hori lortzeko ardura ez da norberarena soilik, denona ere bada, eta Jaurlaritzarentzat helburu horrek lehentasuna du. Horretarako, bi jarduera-ardatz nagusi ari gara garatzen: “Garapen Iraunkorrerako 2020rako Euskal Estrategia” eta “2010erako Euskal Estrategia Energetikoa”.

a) *Garapen Iraunkorrerako Euskal Estrategia bultzatzea*

Garapen Iraunkorrerako 2020rako Estrategiaren baitako ekimenetatik, jarduera-ardatz guztietako hainbat eta hainbat ekimen gauzatu da aurtun. Adibide modura, aipa ditzadan adierazgarrietako batzuk:

- Joan den ekainaren 6an, *2010erako Ingurumen Esparru-programa* jarri zen martxan. 250 adituk baino gehiagok egin dute eta 44 konpromiso zehatz eta neurgarri dakartza, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko, biodibertsitatea zaintzeko, haizearen kalitatea hobetzeko eta ekoizpen eta kontsumo iraunkorrek sustatzeko.
- *Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa* jarri dugu martxan. Bulego hori Kyotoko konpromisoak bete ahal izateko plan bat egiten ari da, aurtengo udazkenean bertan aurkeztuko dutena legebiltzarrean.
- Udalsarea-21era beste 38 udalerrri bildu da. Gaur egun, iraunkortasunaren aldeko udalerrri-sare horretan 176 udalerrri dago, hau da, euskal herritar guztien % 90.
- Sei eskualdetan *Ingurumenaren Garrantziaz Jabetzeko GAP programa* bultzatu dugu, eta 13.000 familiak esku hartu dute (programa hori Nazio Batuek babesten dute).
- *Saneamendurako eta Uren Arazketarako Programa* ere garatu dugu, urari buruzko Europako zuzentaraua betetzearen. Bergarako araztegia aurtun bertan zabalduko dugu, Deba ibarrean.
- Joan den hilean Itsasertzeko Lurralde Plana onartu zen, euskal itsasertzeko ondare ekologikoa eta ingurumen-ondarea arrisku ororen aurka babesteko.

- Armañongo Parke Natural berria Euskadiko Parke Naturalen sarera bildu da; guztira, 3.500 hektarea dauka. Horrenbestez, euskal lurraldearen % 23k ingurumena babesturik dauka nolabait, dela parke naturala izanik, dela biosferaren erreserba, dela Natura Sareko gune edo dela biotopoa izanik.
- Eta nazioartean ere, Euskadik bizi-bizi lan egiten du. Esate baterako, Garapen Iraunkorraren aldeko Eskualde Gobernuen Nazioarteko Sarean lehendakari-kideak gara.

Horra hor aurtan martxan jarri ditugun ekimen batzuk, baina jakin ezazue 2007. urtea amaitu baino lehen beste egitasmo hauek ere gauzatuko ditugula, garapen iraunkorra bultzatze aldera:

- *Klima Aldaketaren Aurka Borrokatzeko Euskal Plana* onartuko dugu, CO₂ gutxiago isurtze aldera, Kyotoko helburuekin bat eginda.
- *Uraren Euskal Agentzia* lanean hastea. Datorren urtarriletik aurrera hasiko da martxan.
- *Hondakinak Planifikatzeko eta Kudeatzeko Gidalerroak* onartzea, eta *Lur Kutsatuen Plan berria* ere onartzea. Plan hori 2011.era arte izango da indarrean, eta lur kutsatuak tratatzeko eta errekuperatzeko planta bat eraikitzea ekarriko du.

b) *Energia-estrategia iraunkorra garatzea*

Iraunkortasunaren bigarren zutabearen egonarrria “Euskadiko 2010erako Estrategia Energetikoa” gauzatzea da. Estrategia horretan aurrera eginez, besteak beste jarduera hauek egin ditugu:

- Gas naturalaren erabilera sustatzea. Euskadin, dagoeneko gas naturala da lehen energia-iturria, petrolioa ere atzean utzita.
- *Bioerregaiak sustatzea*, eta, horretarako, Europa hegoaldeko lehen hiru bioetanol-hornigailuak martxan jartzea, ekimen pribatuarekin lankidetzan.
- *Energia eolikoa bultzatzea*, eta, horretarako, Oizko Parke Eolikoan generadore gehiago ipintzea.
- Eta, itsasoaren mareak erabiliz elektrizitate-indarra sortzeko *egitasmo bat garatzea, proba egiteko, Mutrikun*. Lan horietan, Eusko Jaurlaritza dabil denen buru, eta amaitzen denean, egitasmo horixe izango da, mundu osoan, turbina anitzeko lehen planta. Sortuko duen energiari esker, urtean bi mila tona karbono-dioxido gutxiago isuriko dugu atmosferara.

B) BERDINTASUNA, GIZARTEAREN AURRERABIDEAREN MOTORRA

Berrikuntza garapen iraunkorraren motorra dela esan dugu, eta hori hala izanik, berdintasuna, berriz, Euskadiko gizartearen aurrerabidearen motorra dugu. Eta ez naiz ari ez berdinkeriaz ez eta homogeneitateaz ere, baizik eta benetako aukera-berdintasunaz, hiru ardatz nagusiren inguruan:

- 1.- Genero-berdintasuna bultzatzea, hau da, gizon eta emakumeen arteko bereizkeria saihestea esparru guztietan.
- 2.- Gizarte osoaren berdintasunaren aldeko apustua egitea, hau da, biztanle bakoitzari eskaintzen zaion babes soziala Europar Batasunean eskaintzen denaren parekoa izatea.
- 3.- Hezkuntza eta kultur arloko berdintasuna sustatzea, alegia, pertsona guztiek hezkuntza eta kultur arloan garatzeko aukera-berdintasuna izatea bermatzea.

Gobernua hiru ardatz horien inguruan ari da lanean, Europarekiko konbergentzia soziala lortzeko. Legegintzaldiaren bigarren zati honetan, helburu horiek lortzeko, esan ohi denez “dena emanda” jarduteko asmoa dugu, zeren estatistikaren eta kopuru makroekonomiko positiboen itzalpean, badakigu gure gizartean badela gaizki pasatzen ari den jendea. Pertsona horiek pobrezia atarian bizi dira, ezin dute etxebizitza duinik eskuratu, urteak daramatzate behin-behineko kontratuekin, lanean bereizkeria jasan beharra dute emakumeak direlako, menpekotasunen bat duen senideren bat zaindu beharrean dira. Pertsona horiek izena dute, abizenak dituzte, eta justizia eta elkartasuna eskatzen dizkigute. Eta guri egoera horiei erantzutea dagokigu, betebeharrak hori dugu; izan ere, ekonomikoki hazten ari den gizarte batek elkartasun handiagoa erakutsi beharra du.

Beraz, badakigu errealitate hori hor dagoela, ohartzen gara, eta benetan diotsuet gizarte bereizkeriari aurre egiteko ekimenak abiarazi ditugula, baita European aitzindariak izan diren neurriak ere.

Onartzen dugu oraindik asko dagoela egiteko, baina Gobernuak sentsibilitate sozialik ez duela esaten duenak, horretaz salatzen gaituenak, demagogia politikoa darabil. Aitor dut benetan langintza zaila dela hedabide jakin batzuetan hainbesteko oihartzuna duten asmakeria edo gezur horiei bidea ixtea. Hala izanik ere, ganbera honekiko errespetuagatik eta guztiok berri izan dezazuen, azken urte honetan gobernu honek abiarazitako proiektuetako batzuk ekarriko ditut gogora, eta beste ekimen batzuk ere azalduko ditut, Euskadiko elkartasuna eta justizia soziala hobetzeko erabakigarriak izango direlako.

1.- Genero-berdintasuna sustatzea.

Gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasuna lortzea gure gizarteak duen proiekturik liluragarriena da, erronka handiena eskatzen duen konpromisoa, eta gure gizartearen aurrerabidearen benetako motorra.

Gaur egun astakeria iruditzen zaigu orain dela 76 urte emakumeek bozkatzeko eskubiderik ez izatea, baina 30 urte barru zorrotz epaituko gaituzte gure oraingo euskal gizartean emakumeek ez dituztelako gizonezkoek dituzten aukera berak.

Gobernuak tresna juridiko eta instituzionalak abiarazi ditu helburu horretarantz egiteko. Joan zen urtearen amaieran, ganbera honetan *Berdintasunerako IV. Plana* aurkeztu genuen, hain zuzen ere 2005eko otsailean onartu zen Berdintasunaren Legea garatzeko.

Plan horretan guztira 600 ekintza zehatz aipatzen dira, lau jarduera-ardatzen inguruan bilduta: Generoaren trantsibertsalitatea, parte hartze soziopolitikoa, lana eta familia bateratzea eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra borroka egitea; azken hori, gainera, XXI. mendeko gaitzik okerren eta lotsagarrienetako bat da.

Plana garatzeko asmoz, sailtako jarduera-planak ere idatzi dira, genero-berdintasunaren alde egiteko, eta *Berdintasunaren aldeko sailarteko Batzordea* ere sortu da, Gobernuaren ekintza guztiak koordinatu eta sustatzea xede duela. Horren osagarri, *Erakundearteko Batzordea* ere sortu da, Gobernuak, Diputazioek eta Udalek berdintasunaren arloan dituzten politikak koordinatzeko.

Otsailean onartu ziren jarraibideen arabera, lege-egitasmo guztiek *Genero-eraginaren Derrigorrezko Txostena* beharko dute, onartu aurretik. *Berdintasunaren Aldeko Euskal Udalen Sarea* sortu da, eta *Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Defentsa Erakundea* ere abiarazi dugu, joan zen otsailaren 21ean hasi baitzen lanean; tresna aitzindaria dugu hori generoan oinarritutako bereizkeriari aurre egiteko, eta arlo publikoan zein pribatuan jardungo du.

Era berean, emakumeen berdintasunaren alde egin da Gobernuak sustatzen dituen enplegu-politiketan. Izan ere, esateko moduan nago Enpleguaren Lege berriak jarraituko duen printzipioetako bat lana eta familia bateratu ahal izatea izango dela.

Genero-indarkeriari dagokionez, gobernu honek tinko eutsiko dio estrategia honi: *Inolako tolerantziarik ez sexu-indarkeriaren aurrian*. Lotsagarria da gure gizartean hilero 80 salaketa erregistratzea sexu-erasoak direla-eta. Ez gaude hori onartzeko gertu, eta hori dela eta, prebentzioa eta jarraipen- eta babes-protokoloa indartu, arreta eskaintzeko telefonoak eta harrera-etxeak ugaritu eta tratu txarrak jasan dituzten pertsonentzako laguntzak areagotuko ditugu. Hain juxtu ere tratu txarrak jasandako emakumeentzako harrera-pisuen politika bateratzeko asmoz pasa den irailaren 11n onartutako dekretuak konpromiso horrekin du zerikusia.

Dena den, lege-tresnak eta abiarazitako beste neurri batzuk ere hor egon arren, estatistikek erakusten digutenez, oraindik ere urruti gaude benetako berdintasuna lortzetik. Laneko jarduera-tasa oraindik ere apalagoa da emakumeen kasuan, oztopo handiagoak dituzte lan-merkatuan sartzeko, soldata baxuagoa, gutxi ageri dira aginte-postuetan, eta etxeko lanetan, berriz, gizonezkoak baino hiru aldiz gehiago aritzen dira.

Beraz, ikusten denez guztioi eragiten digun erronka da esku artean dugun hau. Berdintasuna ez da "emakumeen" kontua, eta emakumeena baino ez; guztioi mesede egiten digun lorpen soziala da, eta denok izan behar dugu arazoaren kontzientzia, bereziki gizonezkook.

Gai honen inguruan, jakin ezazue Gobernuak ondorengo hilabeteetan genero-berdintasunaren inguruko beste ekimen batzuk abiarazteko asmoa duela, eta horietako hiru azpimarratu nahi nituzke, berebiziko garrantzia dutela uste baitut:

- *Berme-fondo bat* sortuko da, pentsioak ordaintzen ez diren kasuetarako, eta arian-arian ezartzen hasiko da; hasiera batean premiarik handiena duten ezkontideei ordaintzeko izango da, diru-sarrera jakin batzuetara iristen ez direnei ordaintzeko.
- *Berdintasunerako Euskal Kontseiluaren Lege-egitasmoa* onartuko da; berdintasunaren arloan diharduten elkarteekin batzeko organoa izango da, eta emakumeek erabaki politikoetan parte hartzea aktibatzea izango du helburu.
- Beste programa bat abiaraziko da, *Gizonduz* izenekoa, eta batez ere gizonak izango ditu helburu, eta horiek kontzientziatu nahiz sentibilizatzea nahi izango du, berdintasunaren alde benetan parte har dezaten.

2.- Babes sozialaren arloan berdintasunaren alde egindako apustua.

Borondate irmoa dugu gastu sozialaren esparruan biztanle bakoitzeko egindako gastua Europan egiten dena bestekoa izan dadila lortzeko, legegintzaldi honetan. Baina ez dadila gaizki ulerturik egon; helburu hori lortzeko, nahitaez "hankamotz" ibili beharko dugu denbora guztian, babes sozialarekin zerikusia duten partida gehienek, hala nola erretiro-pentsioak, langabezia, gutxieneko soldata, lan-arloko araubidea edo alargun-pentsioak, beste batzuen artean nabarmenenak aipatzeagatik, Espainiako administrazioaren esku egoten jarraitzen baitute, Euskadik ez duelako oraindik ere Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa eskuratu, nahiz eta 1979ko Estatutuaren 18. artikuluan hala jasotzen den.

Dena den, ez dugu salaketa hutsean geratu nahi. Gure asmoa gabezia horri aurre egitea da, eta Espainiako Gobernuak Estatu osoan ezarriko dituen neurriak oinarritzat hartu nahi ditugu, gero Eusko Jaurlaritzak horiek osatzeko, hain zuzen ere babes sozialaren arloan esku hartzeko dugun gaitasunaren arabera.

Babes sozialari buruz ari garenean, ondorengoekin zuzenean loturik dauden arloez ari naiz, zehazki: osasuna, enplegua, etxebizitza, gizarte-bereizkeria, familia, elkartasuna eta lankidetzak. Azken batean, ongizate-estatuaren laugarren zutabea deitzen zaion horretaz ari naiz. Labur bada ere, eta hurrenkera hori bera erabilita, Gobernuak garatutako ekimenak aipatuko ditut, eta baita lantzen ari garen proiektu berriak ere:

- a) *Osasun publikoaren arloari dagokionez:*
Ekitaldi honetan *lan-eskaintza publikoa* egin da; 4.000 plaza berri gehitu dira, eta ondorioz, plantillaren % 95ak egonkortasuna lortu du. Apirilean, Gobernuak *Inbertsioen Plan Estrategikoa* onartu zuen, 600 milioi eurokoa, osasun arloko azpiegiturak berrizatu eta ekipamendu eta teknologia berriak eskuratzeko. Horrekin batera, planean arian-arian osasun arloko beste 1.300 profesional lanean hastea aurreikusten da. Erreferentzia gisa, esango dut 1999 eta 2005. urteen artean osasun arloko gastuak % 53ko gorakada izan zuela, eta 2006an 1.164 eurokoa zela per capita gastua. Aurreikusita dauden inbertsioen arabera, 2007. ekitaldia amaitzen denerako, gastu hori 1.350 eurokoa izango da per capita.

Giza baliabideen kudeaketari dagokionez, edozein negoziazio kolektibotan naturalak diren gatazkak izan eta gero, negoziazio-prozesua aurrera eraman eta akordioak lortu dira MIR deiturikoekin, aurreakordio bat lortu da Euskadiko Medikuen Sindikatuarekin, eta erizaintzako karrera profesionala onartu da, sektore horretako hiru elkargo profesionalen babesarekin.

Osasun arloko arretari dagokionez, joan zen urtean jardueraren errekorra lortu zen, Osakidetzaen historian inoiz baino ebakuntza kirurgiko gehiago egin baitziren -155.000 ebakuntza-, eta erantzundako kontsultak ere inoiz baino gehiago izan baitziren: -3,6 milioi kontsulta-. Espezialistaren kontsulta lortzeko itxaron-zerrendetan, batez beste, 30 egun itxaron behar da.

Gaixo terminalei Arreta eskaintzeko Plan Berezia onartu da. *Bularreko minbizia garaiz detektatzeko programa* sustatu da, eta horri esker, era horretako minbizi kasuak % 20an murriztu dira. Gainera, *herritarrentzako osasun-txartel elektronikoa* ere martxan jarri da. Esandakoaz gainera, aurreko ekitaldian 20 milioi euro inbertitu dira osasun arloko 430 ikerketa-proiektutan, eta 151 ikertzaile-talde aritu dira horietan lanean.

Garbi dago gaur egun betearazten ari diren proiektuen zati txiki bat baino ez dudala aipatu. Jakinarazi nahi dizuet hurrengo hilabeteetan beste lau ekimen berri abiaraziko ditugula, gizartean eragin handia izango dutenak eta aitzindariak Estatuko osasunaren arloan; lau konpromiso oso zehatz dira.

Kontsultetako eta espezialistaren diagnosi-probak egiteko *itxaron-zerrendak Laburragotzeko Plana* martxan jartzea; joan zen uztailan igorri genuen Legebiltzarrerara. *Osasun-txartel elektronikoa jende guztiaren esku jartzea*. “*Emakumea eta osasuna*” izeneko programa idaztea, berez emakumearenak diren gaitzei aurre hartzeko. Bukatzeko, *sendagaiak zentzuz erabiltzeko programa*; horren bidez, generikoak erabiltzea sustatu nahi da, eta baita sendagileek agindutako tratamenduak behar bezala hartzea ere.

Ekimen horiei esker, lau konpromiso zehatzi erantzuteko moduan egongo gara: Hasteko, *kontsultetan eta diagnosi-probetan gehienez ere* itxaron beharko dena 30 egun izatea; bigarren lekuan, berez emakumeenak diren gaitzen prebentzioa eta horientzako osasun arloko laguntza hobetzea. Eta horretarako, jakin ezazue hartuko diren lehen bi neurriak hauek izango direla: *umetoki-lepoko minbiziari aurre hartzeko txertoa* eta *koitoaren osteko pilula* Osakidetzak finantzatuko dituen sendagaien artean sartzea. Hirugarren konpromisoa txartel elektronikoa dutenen kopurua *milioi bat pertsonakoa* izatera iristea da, eta azkenik, *sendagai generikoen preskripzioa % 20ra* iristea.

Horren guzti horren helburua osasun-zerbitzu publiko eraginkor eta kalitatezkoa lortzea da, European aurre-aurrean egongo dena, eta munduko bizitza-itxaropenaren tasa luzeenetako bat izaten lagunduko diguna.

b) Enpleguari dagokionez,

Gobernu Kontseiluak uztailaren 17an *Enpleguaren Gobernuarteko III. Plana* onartu zuen, behin-behinekotasun tasa % 20tik behera murrizteko, pertsona kaltetuenak lan-munduan sartzeko eta lan-arloko bitartekaritza eta orientazioa bultzatzeko. Era berean, *Lanbidek –Enpleguaren Euskal Zerbitzuak–* hedatzen jarraitu du, eta leihatila bakarreko zerbitzu gisa gainera, eta pasa den uztailan beste hiru bulego ireki zituen, Erandio, Amurrio eta Lasarte-Orian.

Ekimen horiek ekarpen erabakigarria izaten ari dira lan-munduan sartzeko errazteko eta enpleguaren kalitatea hobetzeko. Eta hori guztia nahiz eta orain dela 28 urtetik gaur arte Estatuak ez dizkigun eskualdatu enpleguaren arloan politika aktiboak aurrera eramateko zerbitzuak, eta jakinekoa izanik behin eta berriz eskatu dizkiogula, Gernikako Estatutuan berariaz hala jasota dagoelako.

Bestetik, *Segurtasun eta Laneko Osasunari buruzko II. Plana* onartu da, 37 milioi euro izango dituena, eta helburua gaur egun dugun ezbehar-tasa % 50ean murriztea da, tasa hori ez baitagokio aurreratua den herrialde bati. Bistan da ezbeharren kontrako borrokan eraginkortasun handiagoarekin aritzeko gakoetako bat Euskadik lan-ikuskaritzaren arloko baliabide materialak eta giza baliabideak edukitzea izango litzatekeela; izan ere, eskumen hori 1979ko Estatutuan aipatzen da, eta 28 urte daramatzagu horren zain, eta behin eta berriz eskatu dugu. Arlo hori ahalik eta azkarren eskualdatzeko eskatzen jarraituko dugu, baina, aldi berean, gizarteko gaitz larri horren aurkako borrokan aurrera egingo dugu. Horren inguruan badut aurreratzea hurrengo hilabeteetan Gobernuak dekretu bat idatziko duela, *Lan Arriskuei Aurre Hartzeko Egiaztagiria* lortu duten enpresak saritzeko kontratu publikoak eskuratzekoan.

c) *Etxebizitzari* dagokienez,

Etxebizitzaren Gidaplan berria onartu dugu, 2009. urtera artekoa izango dena, eta bertan, babestutako 27.000 etxebizitza eraikitzeke konpromisoa hartu dugu, eta horietako % 30 baino gehiago, hau da, gutxienez 8.500 etxebizitza, alokairuan hartzekoak izango dira. Guztira, planak 2.815 milioi euroko aurrekontua izango du. Neurri horiei esker, eta *Bizigune Programaren bidez*, hutsik zeuden etxeak merkatuan jartzeagatik, nabarmen ugartu da babes ofizialeko pisuen alokairua, eta hori hain da horrela, non Euskadin alokairuan eskaintzen diren bi etxetatik bat babes publikoduna baita.

Etxebizitzak zaharberritzeko laguntzak ere ugartu egin dira, eta helburua zaharberritutako 41.000 etxebizitzatara iristea da. Gainera, *eraikin zaharrei ikuskapen teknikoa egiteko programa* ere abiarazi da, eta horri esker, datozen urteetan 20.000 etxebizitzaren egoera zein den jakiteko moduan izango gara. Horrekin batera, *Iruzuraren aurkako plan bat* ere idatzi da, eta horri esker, 20.000 eraikin ikuskatzeko aukera izan dugu, eta horien % 9an irregulartasunak aurkitu eta zigortzeko modua ere bai.

Guztiok dakizuen bezala, ekimen horiek guztiak *Etxebizitzaren Legea* deituko denean jasoko dira, proiektu berezia benetan; une honetan zirriborroa idazten ari gara, eta diru-sarrera apalenak dituzten euskal herritarrek etxebizitza duin eta egokia izateko duten eskubideari erantzungo dio, alokairu sozialeko etxebizitza-kopurua ugartuz.

- d) Gizarte-bereizkeriaren aurkako borrokari dagokionez, Aurtengo ekainaren 19an, *Gizarteratzeko Erakundearteko II. plana* onartu zen, eta 880 milioi euroko diru-kopurua du. Horren bidez, osasun, etxebizitza, hezkuntza eta justizia arloko zenbait neurri integral eraman nahi dira aurrera, eta helburu zehatza txirotasun-arriskuaren tasa % 3tik behera jartzea da. Helburu bera lortzeko asmoz, eta Alderdi Sozialistarekin lortutako Itun Sozialari esker, laster gaur egungo *Gizarte Bereizkeriaren Legea eta Gizarte Eskubideen Karta* aldatu egingo dira. Aldaketa horri esker, joan zen ekaineko 4/2007 Legeak onartutako neurria sendotu egingo da, hau da, *oinarrizko errenta gutxieneko soldataren % 88ra arte* igotzen duen neurria. Horrekin batera, *etxebizitza alokatzeko beste laguntza sozial bat* emango da, eta *oinarrizko errenta 18 urtetik gorako gazteei ere emango zaie, kasu jakin batzuetan*.

Baina neurri horiek guztiak oso garrantzitsuak izanik ere, beharbada eragin sozial handiena izango duen neurria baliabide gutxieneko pentsiodunei pentsio duina bermatzeko konpromisoa izango da. Nire ustez helburu hori dagoeneko gertatzen den zerbeit izan beharko litzateke estatu osoan, Gizarte Segurantzaren bidez finantzatua gainera, baina Eusko Jaurlaritzan ezin diogu entzungor egin bidegabekeria sozial horri, pentsiodun asko pobrezian bizi baitira. Hori dela eta, gure helburua gaur egun indarrean dagoen Gizarte Bereizkeriaren Aurkako Legea eta eskubide sozialen karta aldatzea da, *gure erkidegoa lehena izan dadin baliabide gutxieneko pentsiodunei laguntza-osagarri bat ematen, beren pentsioa gutxieneko soldataren % 100 izatera irits dadin*.

Dena den, eraikuntza sozialaren benetako mugarrria *Gizarte Zerbitzuen Legea* izango da; dagoeneko aurreproiektuarekin lanean ari dira hainbat hilabetez, diputazio eta udalekin elkarlanean.

Legea oinarrizko aldaketa izango da, gure asmoa arian-arian gizarte-zerbitzuak eskubide unibertsal gisa hartzea baita, osasun- zein hezkuntza-arloan gertatzen den bezalatsu, eta gobernuaren, diputazioen eta udalen ekimenak koordinatuko dituen tresna berria ere lortu nahi genuke, esparruotan: gizarte-laguntza, menpekotasunen bat duten pertsonentzako laguntza, egoitzak, telelaguntza, arazoak dituzten adingabekoentzako laguntza, eta gizarte-bereizkeria jasaten duten pertsonentzako laguntza, beste talde batzuen artean.

- e) *Familiari* dagokionez, Gobernua estrategia integrala garatzen ari da, eta horretarako ardatz nagusia *Familiari Laguntzeko II. Plana* da, 2.780 milioiko euro kopurua duena. Asmo hauek jasotzen dira bertan:
- Lehen seme-alaba eta hurrengoak izateagatik edo adoptatzeagatik emandako *dirulaguntza ekonomikoak*. Diru-laguntza horiek Estatuak onartutako 2.500 euroen osagarriak dira.
 - *Familia eta lana bateratzea*. Laneko eszedentziak hartzeko, urteko 1.350 eurotik 3.000 eurora arteko laguntzak aurreikusten dira, bai seme-alabak zaintzeko edo menpekotasunen bat duten pertsonak zaintzeko.
 - Pertsona bat kontratatu ahal izateko diru-laguntzak ematea, seme-alabak hiru urte bete arte zaintzeko.
 - Eta 0-3 urte arteko haur-hezkuntzako zerbitzua sustatzea; horretarako, legegintzaldian zehar urtero 1.000 plaza sortuko dira.

Neurri horien guztien osagarri, aurtengo martxoan *Familia Bitartekaritzako Lege-proiektua* onartu zen, eta une honetan Legebiltzarrean izapidetzen ari dira.

Berehalako etorkizunari begira jarrita, jakin ezazue urtea amaitu baino lehen Gobernuak *Familiari Laguntzeko beste lege bat* onartuko duela, eta horren bidez, garatzen ari garen ekimenak sendotu eta are gehiago hedatuko dira, eta helburua hurrengo 12 urteetan seme-alabak dituzten familiei arian-arian diru-laguntza gehiago ematea izango da, Europako herrialde aurreratuenetan familiak babesteko dituzten neurrien ildo beretik.

- f) Etorkinekiko eta garapen bidean diren herrialdeekiko elkartasunari dagokionez, pasa den ekainean Immigrazioaren II. Euskal Plana onartu genuen, diputazioekin eta udalekin elkarlanean, eta horretarako 96 milioi euro erabiliko dira, alegia, lehenengo planean aurreikusitako kopurua hirukoiztu egingo da.

Era berean, Garapenaren aldeko Lankidetzarako Legea onartu da; lege horrek Gobernuak Kanpoko Erakundeen eginkizuna sendotu eta diru-kopuruetan arian-arian gora egitea aurreikusten du, 2012.ean aurrekontuaren % 0,7ra iritsi arte.

Ildo beretik, badut aurreratzea laster Lankidetzaren Euskal Agentzia sortuko dela, orain estatutuak prestatzen ari baikara.

- g) Bukatzeko, *babes eta segurtasunaren arloan dagokionez*, Dagoeneko zerbitzua eskaintzen ari da Ertzaintzaren azkeneko promozioa, 319 agentek osatua, eta horri esker 8.000 agentek osatutako polizia integrala dugu zerbitzuan. Gainera, *Bide Segurtasunaren 2007-2010erako Plan Estrategikoa* onartu da, eta horren bidez trafiko-istripuetan hildakoen kopurua % 50ean murriztu nahi da, 2001eko datuekin alderatuta; helburu hori jarri eta horretarako konpromisoa hartu da.

3.- Heziketan eta kultura-arloan aukera-berdintasuna bultzatzea.

Genero-berdintasunaren aldeko ekimenei eta babes sozialaren arloan berdintasuna lortzeko ekimenei, beste arlo batekoak gehitu behar zaizkie, gizartearen garapena hezurmamitzen jarraitzeko: hezkuntza eta kulturaren arloan ere aukera-berdintasuna sustatzeaz ari gara.

- a) *Hezkuntza-garapena.*

Gobernuan zenbait ekimen bultzatzen ari gara, hezkuntza-sistemaren hiru mailetan --hau da, Derrigorrezkoan, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean-- benetan mugarri historikoa izango diren ekimenak:

Derrigorrezko irakaskuntzaren arloan, berebiziko garrantzia du oinarrizko irakaskuntzarako *curriculum berria* onartu izanak; datorren ikasturtean hasiko dira hori erabiltzen, eta horri esker, Oinarrizko Hezkuntzako ikasleek beharrezko gaitasunak eskuratuko dituzte etorkizuneko gizarteak izango dituen erronketara egokitzeko; horrekin batera, gure Herriaren berri ere sakonki lortuko dute, baina mundu globalizatuaren testuinguruan.

Horren osagarri, eleaniztasunaren aldeko apustua egiten jarraitzen dugu, hezkuntzarentzat aberasgarria iruditzen baitzaigu, eta, beraz, hezkuntza-sisteman hirugarren hizkuntzak lekua izan dezan lanean dihardugu. Gai horren inguruan, 2007ko martxoan ganbera honetan *Hizkuntzak Ikasteko Esparru berria* izeneko proposamena aurkeztu zen; laster lege-egitasmo bihurtuko da proposamen hori, 2008-2009 ikasturtean aplikatzeko modua izateko, eta berari esker, ikasle guztiek Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan hitz egiteko gaitasuna izatea bermatuko da, eta, beraz, inork ez du bereizkeriarik jasango hizkuntza dela eta.

Aurtengo ikasturtean *kulturartekotasunari eta ikasle etorkinak gizarteratzeari buruzko programa* ezartzen hasi da. Gobernuaren helburua ikasle horiek behar bezala gizarteratu daitezela lortzea da, ikasleok sare publiko eta pribatuaren artean berdintasunez banatu eta zentro batek % 30 ikasle etorkin baino gehiago izatea saihestuz. Era berean, bekentzako programari ere indarra eman zaio, eta gaur egun ikastetxe publikoetako ikasleen % 36k eta ikastetxe kontzertatuetako % 23k eskuratzen du bekaren bat.

Horrekin batera, irakasleen egonkortasuna eta lan-baldintzak ere hobetu ditugu, ezinbesteko baldintzak baitira horiek gure hezkuntza-sistemaren kalitatea mantentzen jarraitzeko. *Enplegua sendotzeko Plana* abiarazi dugu, eta 2007-2011 urteen artean hezkuntza-sisteman 3.000 lanpostu eskaintzeko konpromisoa hartu dugu, bitarteko funtzionarioen ratioa plantillaren % 8tik beherakoa izan dadila lortzeko. Lehen deialdia aurten bertan izan da, eta 1.100 lanpostu eskaini dira.

Testuinguru horretan, eta negoziazio gogorren ostean, joan zen ekainean aurreakordioa lortu zen CC.OO sindikatuarekin, hau da, irakaskuntzan gehiengoa duen sindikatuarekin, unibertsitatez kanpoko irakasleen lan-baldintzak 2009. urtera arte arautzeko.

Egiten ari garen ahalegin handi horren ondorioz, Euskadi da hezkuntzaren arloan arrakastarik handiena duen erkidegoa. Euskadin eskola-porrota % 13koa da, Espainiako batez bestekoa baino askoz ere apalagoa, estatuan % 30ekoa baita, eta Europako batez bestekoa baino hobeia ere bada gurea, Europakoa % 15ekoa baita. Gure konpromisoa datu horiek sendotu eta hobetzea da, eskola-porrota % 10etik beherakoa izan dadila lortu arte. Helburu hori du *Euskal Hezkuntza Sistemaren Lege Berriak*; dagoeneko horretan lanean ari da Gobernuak, eta 2008. urteko lehen hiruhilabetekoan errealitate izango da.

Azken batean, gure irakaskuntza kalitatezkoa da, eta txosten ofizial guztietan, hezkuntzako parametroetan buruan agertzea ahalbidetzen digu horrek. 2007ko irakaskuntzako bikaintasunaren sailkapena profesional independenteen talde batek egin eta Hezkuntza Ministerioak argitaratu du, eta horren arabera, Euskadi lehen postuan dago, 10etik 9,37ko puntuazioa lortuta.

Lanbide Heziketari dagokionez, eta bigarren Euskal Plana amaitu ostean, jakin ezazue *Lanbide Heziketako III. Euskal Planaren Oinarrizko Jarrabideak* onartu ditugula dagoeneko, eta laster batean hori ere errealitate izango dela. Dena den, beste inon baino lehen ganbera honetan jakinarazi nahi dut, plan horretan Lanbide Heziketaren aldeko apustu estrategikoa sendotu egingo dela, ekimen berritzaileen bidez, hain zuzen ere jaiotze-tasaren beherakadari aurre egiteko eta zenbait arlotan emakumeak sar daitezela sustatzeko. Gainera, praktikaldia hedatu egingo da, eta baita ikasketak eta lana aldi berean aurrera eramateko aukera ere; esperientzia berritzailea da, eta dagoeneko martxan jarrita dute Euskadiko Lanbide Heziketako lau zentrotan.

Unibertsitateari dagokionez, Gobernuaren Batzorde Ekonomikoak 2007-2010erako *Unibertsitate Plan Berriaren* ildo nagusiak onartu ditu, eta urrian Gobernu Kontseiluak onartuko du; 1.260 milioi euroko aurrekontua izango du, bertan sartzen delarik finantziario arrunta, inbertsioak egiteko finantziario berezia, eta azpiegituretarako nahiz hiru euskal unibertsitateekin programa-kontratuak bideratzeko funtsak.

Plan horren barruan zazpi jarduera-eremu daude jasota, eta horien artean nabarmentzekoak dira berrikuntza eta irakaskuntzaren kalitatea, euskal unibertsitateen nazioartekotzea, ikerketa zientifikoaren garapena eta euskararen erabileraren normalizazioa. Gainera, ondorengoak ere jarri dira martxan: *Unibertsitate-Sistemaren Ebaluaketen eta Akreditazioen Agentzia, Ikerbasque Fundazioa eta Ikerketen Euskal Kontseilua.*

b) *Kultura eta gazteria bultzatzea*

Gure kultur nortasuna sendotu nahi dugu, kultura unibertsala ere gureaz elkarbanatuz, eta kultura unibertsal horri gure nortasuna eskaini nahi diogu, Europako herri zaharrena baikara. Kultura, euskara eta gazteria ezinbesteko hiru oinarri dira euskal gizarte integratu eta kohesionatua lortzeko; munduari gure nortasunaren berri emateko ditugun ikurrak dira, eta, beraz, euskal administrazio guztien lehentasunezko helburua dira.

Hori dela eta, eta euskal *kulturaz* ari garela, legegintzaldiaren hasieran *Kulturaren Euskal Plana* abiarazi genuen. Plana betearazteko lehen bi urteetan, bertan jasotako ia 200 proiektuen % 60 gauzatu da dagoeneko.

Bereziki azpimarratzekoa da aurten planari emandako bultzada, *Etxepare Institutua Sortzeko Legea* onartu baitzuen ganbera honek apirilaren 20an, hain zuzen ere mundu osoan euskal kulturaren berri eman eta hedatzeko.

Gainera, *Kulturaren Euskal Behatokia* jarri da martxan, *Euskadiko Museoen Legea* onartu da, eta *Euskal Antzerkien Sarea* ere sortu da, SAREA izenekoa.

Era berean, Gobernuak *Liburutegien lege-egitasmoa* onartu du, orain ganbera honetan izapidetzen ari baita, eta *Artxiboen Euskal Sistemaren Legearen* aurre-egitasmoa ere idatzi da; urrian onartzeko asmoa dugu, eta euskal artxibo historiko nazionala sortzea ekarriko du horrek. 24 milioi euro erabiliko dira, Bilbon 7.000 m²ko egoitza prestatzeko.

Lege berri horiei esker, eta orain dela gutxi *Museoen Legea* eta *Liburutegien Legea* onartu direla kontuan izanda, Euskal Liburutegi Nazional peto-petoa izateko moduan egongo gara, gure historian lehenbiziko aldiz.

Esandakoez gainera, kultur arloko azpiegitura garrantzitsuak berriztatu eta eraikitzeari ekin zaio; esate baterako Santa Maria Katedrala eta Arkeologia Museoa. Añana Gesaltzako gatz-ustiategia berreskuratu da, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa sortu da, baita Euskal Liburutegia ere, eta Ekaingo kobazuloaren museoa eta errepika egin dira.

Ikusentzunekoen euskal sektorea sendotzen jarraitu dugu, pasa den uztailaren 17an tokiko telebista digitalaren arloan lan egiteko 57 kontzesio esleitu baitziren.

Kirolaren esparruan, ia milioi bat euro eman dira *kirol arloko euskal selekzioek* nazioartean parte hartzea sustatzeko.

Gure hizkuntza nazionalari, euskarari, dagokionez, pozik esateko moduan gara azken urteotan nabarmen egin duela gora euskaraz hitz egiten dakitenen kopuruak. Orain, helburua bizitzeko esparru guztietan euskara erabiltzea lortzea da: gizartean, politikan, lan-arloan. Horren inguruan, ekimen berritzaileak abiarazi dira, eta hezkuntzan, justizian, osasunaren esparruan eta lan-arloan euskara erabiltzea bultzatzeko programak garatu dira.

Ahalegin berezia egin da euskarak informazioaren teknologia berrietan ere lekua izan dezan. Eta horren erakusgarri dira zenbait programa, esate baterako *lan-hitz*, *Ukan* saria edo *Euskalgintza*; horiei esker, aipatutako helburuak lortzen ari gara.

Guk kulturaren alde egiteko ildo horretatik jarraitu behar dugu lanean, berdintasunaren eta nortasunaren aldeko tresna dela uste baitugu. Horren inguruan, jakin ezazue aipatu ditudan ekimen horiez gainera, urtea amaitu aurretik Gobernuak hurrengo proiektuak ere abiaraziko dituela, eragile izateko asmoz:

- EITBrekin *II. Programa-Kontratua* izenpetuko da.
- *Arte Eszenikoen Irakaskuntzarako Zentroa* sortuko da.
- *Kultur arloko Arte eta Industrien Institutua* abiaraziko da.

Bukatzeko, aipamen berezia egin nahi diot *Gazteriaren Legeari*, 2006. urtearen hasieratik jardun baitugu horretan lanean. Zirriborroa dagoeneko erakundeei eta gazteen elkarteei aurkeztu zaie, eta milaka gazteren iritzia ere jaso dugu, “gazte-aukera” izeneko gazteentzako atariaren bidez. Proiektu hori aurten onartzeko asmoa daukagu, eta mugari historikoa izango da; beste batzuen artean, ondorengoak jasotzen ditu: gazteek udal esparruetan parte hartzeko eskubidea, eta ondorengo arloekin zerikusia duten neurriak indartzea: enpleguaren egonkortasuna, etxebizitza eskuratzea, gazteen parte hartzea, eta gazteak kontuan hartuko dituen kalitatezko azpiegitura eta zerbitzuen politika.

Hirugarren atal hau bukatzeko, ozen esan behar dizuet giza garapen iraunkorrean aurrera egiteko ahalegin handiak ari garela egiten, baliabide publikoak kudeatzerakoan erantzukizunez, arduraz eta modu eragingarrian jokotuta.

Horri lotuta, euskal administrazioen finantza-egoerak sendotzeko eta bermatzeko funtsezko hitzarmenak lortu direla azpimarratu nahi dut; hor ditugu, esaterako, *Ekarpenen Lege* berria, Foru Aldundiekin adostua, edo duela gutxi sinatutako *Kuporearen Bosturtekorako Legea*. Benetan gustatuko litzaidake, konfiantza-giro honetan, aurrera begira, baina laster, Espainiako administrazioarekin akordioaren bat lotzea, gure Ekonomia Itunaren sistema defenda dezagun elkarrekin European, eta, era horretara, “blindatuta” gera dadin judizializazio- eta errekurtsio-prozesu horietan.

Azpimarratu behar da, beraz, eboluzio ekonomikoa ona izan denez eta aurrekontuetan egindako kudeaketa seriotasunez egin dugunez, nazioarteko rating-agentziek kalifikaziorik onena eman digutela. Zehatzago esanda, Standard and Poors agentziak, 2007an egindako txostenean, Euskadiri emandako kalifikazioa handitu eta A hirukoitza eman dio; hau da, eman litekeenik eta kalifikaziorik handiena eman dio, eta horixe da gure burua atzerrian aurkezteko dugun argazkirik onena.

Gobernatzea, azken batean, ez da gizarteaz ezbaita “arina” zabaltzea, eta ez da, finantza-bide jakinik gabe, “ideien lehiaketa” bat zabaltzea-edo. Gobernatzea pertsonen beharriari erantzuna ematea da, eta, horretarako, lehentasunak zehaztu behar dira, erabakiak hartu, eta, zenbaitetan beste ate batzuk itxita, aukera askoren artean bakarria hautatu behar da. Helburu askotarako erabil daitezkeen baliabide ekonomiko urriak seriotasunez kudeatzea, horixe da gobernatzea.

Lan handia daukagu oraindik egiteko, arazo asko dago konpontzeko, pertsona asko laguntzeko... baina, denok jakin behar dugu, Euskadi –gure jendearekin eta gure administrazio publikoekin- oso Herri ederra dela bizitzeko eta lan egiteko, eta Euskadik konfiantza ematen duela mundu osoan.

IV. ATALA:

Euskal gatazkaren irtenbideari ekiteko apustu sendoa

1.- “Zurrunbiloa” eten beharra dago

Ez dugu asmatzen euskal gatazka nola konpondu –gure artekoa eta Espainiarekikoa- “zurrunbiloan gaudelako”, “zurrunbiloan sartuta hausnartzen dugulako” eta “zurrunbiloan sartuta pentsatzen dugulako”.

Denok hartzen gaituen zurrunbilo hori geldiarazten asmatzen ez dugun bitartean, ez dugu irtenbiderik aurkituko; nekatu egingo gara, frustratu, behin eta berriro.

Zenbaitek ukatu egin nahi du begien bistan dagoen hori –“ez dago inolako gatazkarik” diote- eta horrek irauarazi egiten du egoera. Gatazka politikoa badagoela ezin da ukatu, begi-bistakoa delako; gatazka politikoa bera ez da, berez, inportantea –gatazkan egotea ohiko egoera naturala baita gizarte demokratikoetan-; gatazka hori nola bideratu behar den, horixe da benetan inportantea, azpimarratu eta nabarmendu beharrekoa.

Bat ez etortzea, ados ez egotea... hori ez da txarra; ezta jarrera guztiz kontrakoak edo aurrez aurrekoak izanda ere; horregatik inor hiltzea, horixe da benetan ikaragarria. Hortxe ditugu eskoziarrak; modu baketsuan eta demokratikoan bideratu nahi dute gatazka politikoa, -nola, bestela, geldiarazi, behin eta berriz, beti leku berberera garamatzen gurpil hori?-, eta autodeterminazioaz erabakitzeke erreferenduma ari dira planteatzen oso modu serioan, XXI. mendean Erresuma Batuekin dituzten harremanak berriz beste esparru batean ezartzeko.

Euskal gatazka bideratzea -ez, ebaztea- gurpil erromantiko horien zurrunbilotik ateratzea da, eta buruz eta zentzuz “norgehiagoka demokratiko osasuntsu” horretan nabigatzea da. Ez da arazo juridikoa, beraz. Borondate politikoa da arazoa. “Norgehiagoka demokratiko osasuntsu” hori bideratzerakoan, “konstituzionaltasun baliagarri” horretan defendatzen diren printzipioak erabil daitezke, horien arabera, Euskal Herriari dagozkion eskubide historikoak Konstituzioa bera baino lehenagokoak baitira, eta, beraz, oso tresna erabilgarria baita Euskal Herriaren erabaki-eskubidea interpretatzeko, eta eskubide hori modu itunduan baliatzeko.

Edo, nahiago baduzue, “norgehiagoka demokratiko osasuntsu” hori onartzea eta horretan buruz eta zentzuz nabigatzea, horixe da gatazka politikoa erantzuna ematea; Espainiako Legebiltzarrean Estatutu Politiko Berria aurkezterakoan esandako bi esaldi hauek dira egoeraren adierazgarri. Bata, Espainiako presidente Zapatero jaunak esandakoa: “elkarrekin bizi bagara, eta elkarrekin erabaki behar dugu”, eta nik, lehendakari nintzen aldetik, eman nion erantzuna: “elkarrekin bizitzea erabaki ahal izan behar dugu”.

Aitortzen dut, beraz, “zurrunbiloan dabilen eztabaida” gainditzeko eta euskal gatazkaren konponbidea bideratzeko gaur hemen egin ditudan proposamen hauetan, arazo politikoa konpontzeari ekiteko proposamen politiko eta demokratikoak planteatzen direla.

Hitzak balio handia du niretzat, eta horrexegatik egin behar dut. Emandako hitza bete behar da. Nik hitza eman nizuen eta hitza beteko dut.

Bizitza honetan gauza handia da “hitzekoa izatea”, “konfiantza” sortu nahi baduzu behintzat. Udazkeneko orbelaren antzera, haizeak daramatzen hitz hutsekin neka-neka eginda dago gizarteak.

ETak bere hitza jan du bi aldiz jarraian: 1999 / 2007

Hitza “lehertarazi” du, eta, horrekin batera, euskal gizarteak kasu batean eta bestean bake-prozesu bietan jarri zuen konfiantza ere zartarazi du.

Belaunaldi honetarako, behintzat, indarkeria bukatu egingo zela-eta emandako hitza non geratu da? Non geratu da Anotako Adierazpena?

Bakea ekarriko dugu eta gatazka politikoa konpontzea lortuko dugu; baina ez da izango ETak hala erabaki duelako, ez; geuk hala erabakita izango da, euskal gizarteak halaxe erabakita.

Ez ditugu geure buruak engainatu behar; euskal gatazka konpontzea geure esku dagoen erantzukizuna da. Konponbidea ETaren borondatearen mendean uzten badugu besterik gabe, gureak egin du. Euskal gizarteak izango da, eta ez ETA, bakea eta normalizazio politikoa ekarri behar dituen.

Estatu espainiarrak ere jan egin du Euskal herriari eman zion hitza

Gernikako Estatutua bete gabe utzi du nahita Espainiako Gobernuak. Estatutua gaur egun oso triskatuta dago. Atal bati buruz diote “ez dela konstituzionala” eta beraz ezin dela transferitu. Beste atal bat, Euskal Herriari dagozkion eskubide historikoak errespetatu behar direla adieraztekoa, ez du ezertarako aintzat hartzen.

Gaur egun Espainiako Estatua, Erresuma Batuan Eskoziarekin gertatzen denaz oso bestela, ez da nazio asko biltzen dituen estatua, nazio bakarra baizik; halaxe uste du, ez PPK bakarrik, baita PSOEek ere.

Azken 28 urteotan izan dugu, bai, PPren eta PSOEren gezur handi hori argi ikusteko aukera; duela gutxi ikusi dugu-eta berriz ere gorputza hartuta, Eusko Legebiltzarrak gehiago osoz onartutako Estatutu Politiko Berriari –ezta negoziatu ere egin gabe- EZETZA eman ziotenean. Argi ikusi dugu gezur hori, Kataluniako Estatutua leuntzearen, “Madrilgo arrabota” pasatu dutenean. Eta, are gehiago; argi ikusi dugu PSOEek Nafarroan zein ongi errespetatu duen PSN bere frankiziak hartu zuen “erabaki autonomoa”.

Bada, argi eta garbi esan behar dugu. Euskadik sina dezake Estatu espainiarrarekin batera bizitzeko ituna, baldin eta Espainiak nazio aniztuna dela aitortzen badu; baina Espainiako Estatuak kulturaren, politikan eta lege-aldetik ez baditu onartzen eta aitortzen bere baitan bizi diren nazioak –Euskadi horietako bat izanda-, orduan, ez; ez dago itunik.

Hau da, hau, egoera! Ondo bizi gara, seguru aski, inoiz baino hobeto, gure ahaleginez, inork ezer eman gabe, lan ederra eginda! Baina, bakea eta errespetu politiko eta juridikoa falta zaizkigu, garena garelako halaxe dagokigulako guri; zergatik? Europako herririk zaharrenetakoa garelako.

Bai, gure Herria sufritzeaz nekatuta dago; eta, era berean, neka-neka eginda dago, begirunea galtzen digutelako.

